



BARREN

TOKIKOM


Hastear dira





INPLANTE PROMOZIO BERRIA!

.....Ondo pasa jaietan!.....



**Ekainaren 15-etik
Irailak 15-era arte!**


943 36 63 77
www.dentalaldaz.com



Lasarte - Oria
Ola kalea, 10

Elgoibar
San Bartolomé, 22

Tolosa
San Frantzisko, 39



asador ibai-ondo

943 256 028

Ibai-Ondo erretegia menua

- Errezebo erreserba handiko urdaiazpikoa
- Etxeko frijituak
- Patea
- Gula eta ganba entsalada epela

-
- Bigarren platera aukeratzeko
- Arkume errea
 - Entrekota
 - Buztana eta masailak saltsan
 - Txipiroiak plantxan
 - Erreboiloa
 - Legatza plantxan edo arrautza-irinetan
-

- Postrea **30€**

LANBROA San Miguel

Pedro Muguruza, 5
Tel.: 943 743 811 / 943 740 806

MENU LANBROA 1

- Iberikoak
- Patea
- Frijituak

25€

- Bigarrena aukeratzeko
- Azpizuna
 - Masailak bere saltsan
 - Bakailaoa tomatearekin
 - Legatza labean erreta

Ardoa eta freskagarriak

MENU LANBROA 2

- Iberikoak
- Frijituak
- Txerri saiheskia erreta
- Postrea

16€

USUA 943 256 028 kafetegia

USUA MENUA

- Patea
- Urdaiazpikoa
- Frijituak
- Txerri saiheskia edo legatza plantxan
- Postrea

18€





Elgoibar BHI

www.elgoibarbhi.eus

Elgoibar BHI

Arregitorre 2

Tel.: 943 748 397

E-posta: 01343faa@hezakuntza.net



Jai zoriontsuak!

AHOLKULARITZA

BIKAIN
ASESORIA

Tel.: 943 744 557

Faxa: 943 740 408

e-posta: bikain@fonocom.es

- Ⓢ Zerga-aholkularitza
- Ⓢ Lan-aholkularitza
- Ⓢ Kontabilitate aholkularitza

Antonio Arrillaga, 4 behea
20780 ELGOIBAR

ALEX BERASATEGI
ARGAZKI ESTUDIOA



633 118 355

Kalamua, 21. behea - Elgoibar

info@alexberasategi.com

www.alexberasategi.com

Maria Urizar
Ileapaindegia

Errosario kalea, 9 - 1 ezk.
Tel.: 943 744 489 - Elgoibar
maria.urizar@hotmail.com



PNEUMAX, S. A.

MEMBRO DE
aiftop
Olehidráulica y
neumática



AUTOMATIZAZIO
NEUMATIKAKO OSAGAIAK

Olaso kalea, 15 eraikina, Pab. 52-53-54


20870 Elgoibar (GIPUZKOA)

Tel.: 943 744 144 - 943 744 174

Faxa: 943 744 076

pneumax@pneumax.es

www.pneumax.es





ARKAITZ IRURETA ARRIETA

“Orain, zera galdetzen diot neure buruari: ba ote daguan bizitza heriotzaren aurretik”

Bon-Tse buda txikia, diuenez, gure erabakixen %90 inkontzienteki hartzen dittugu. Freudek azertu zittuan *Es, das Ich und das Über-Ich* (Latinez *Id, Ego eta Superego, nola esango zenduan euskaraz, Hura, Nia eta Supernia?*)

Eta hórretatik Niaren eta Superniaren zatitxo bat besterik ez ei dago kontzientian edo agerixan. *Hura* edo desio eta pulsio gutxiak ezkutuan ei dittugu.

Heriotzak kolpatzen dabanetan, erreflexiorako unia hartzen dot. Lehen, heriotzaren ondoren bizitarik bazaguan galdetzen nion neure buruari. Orain, ba ote daguan bizitza heriotzaren aurretik.

Bucayren ipuin batian bidaiarixak hillerri bat bisitatu zaban. Hango hillarri guzixetan lurperatuta zagozenen adiñak irakurtzen ziran. Batian, 6 urte, 10 hillabete eta 5 egun. Beste batian, 7 urte eta piku, ondokuan 3 eta piku, haruntzagokuan 10...

Bidaiarixak bertako bati galdetu zion ea ze zorigaizto zagan herri hartan danak hain gazte hiltzeko.

Bertakuak erantzun zion herritar bakoitzak kuadernotxo bat zeukala paparrarian, eta bertan apuntatzen zabala benetan bizi eta disfrutatutako egun bakoitza, eta hiltzen ziranian kuadernuan apuntatuta zaukaten denboria batzen zebela hillobixan jartzeko. Hori dalako benetan bizitako denboria.

Esaten dabenez, pertsona omen da amets batengaittik bere burua jokuan jartzen daban animalixa bakarra. Hain muturrera eramán gabe ere, hórrek barruko pulsio eta desiuok segitzian dago bizitzaren sekretua, nere ustez.

Nere kasuan, argi daukat naturarekin kontaktuan egotiak betetzen dabala pulsio hori; BARRENen idatzian ondoren, gehixen gustatzen jatana izango da seguraski. Kar kar kar.

Buda txikia, eta zure kasuan zerk ematen dio bizitza zure urteiei?



IBON SERRANO LASA

“Uneoro daiteke zorientasuna gertu xamar, hortaz jabetu ezkeru noski”

Arkhadi mouffi errukigarria, neronek ere dut maite zure osagarri izaita literatur txoko honetan. Zinez, Jakintza-Ororen 3. begiak egiazko bizilekua aurkituko lukeela gugan; alegia, bekoki headadura nabarmena nigan eta estalpe bekain-bikaina zugan.

Ados nauzu bizitzari zukua ateratzen saiatu behar gatzaiola diozunean; uneoro daiteke zorientasuna gertu xamar, hortaz jabetu ezkeru noski.

Bada inor ere, sufrikarioan sasizorientasun printz bat dakienik aurkitzen. Karbalako txiiten Ashura liturgia odoltsua bailitzan, Abuztuko Txiki egun sargori grisean, Errosario karrikan, txaranga-ren Antso-Kixote-Kixote-Antsoren enegarren burrunbadapean baraualdian lisergizaturik, ardo merkearen lanbrope zikinean orditurik, hamaika ukondo gurutziltaturik, gorpuzkinen izerdi eta adur fluxu jariotan orbandurik; eta halere, bada duinki zutik dirauenik irrifar lausoa ezpainetan.

Beyondeiola Mindfulness disziplinan 9. Giorgi-Dan gerriko beltz horri!

Pulsio eta irrikei buruz berriz, BARRENek hilabete dela el-karriketatutako Angel Ugarteburu handia datorkit burura. Hor izan dugu Ternua&Labrador lanbrotsu hotzean gure historiako

3. garai handian sakontzen. Hori bai, hori, herrigintza. Txapela kentzekoa den emaztearen bultzada izan du bai, baina adore eskerga behar da konfort eremutik irten eta erakarpen indar zentripetak gainditzeko. Elgoibarren bereziki indartsuak direnak.

- *Aizu! oso ondo! baina nik ere bidaiatu dut noizbait!*

Oldartuko zait “irakurlebakar” jelsia puntuaz.

Eta nik erantzungo:

- *Desolé Monsieur-Madame, Madrilerá ‘Reyleón’ ikustera joateak ez du balio.*

(ui, ui, akabo gurea, Arkhadi).

Bukatzeko, guzti honekin lotuaz, iragarki bat:

Huxley andere ikertzaile txit gorenak Oñatiko artxiboetan aurkitutako erregistroari esker Red Bayko euskal itsasontzia azaleratu zen, UNESCOk gizateriaren ondare izendatuz.

Ba, orain, zu ere ikerlari! Izan ere, Elgoibarko Izarraren udazkeneko *Gure zuhaitzak landatzen* egitasmo berritzaileak edozein herritarri trebakuntza eskainiko baitio gure historiaren itzal ezkutua ekartzeko. Adi berriei!



AINHOA ETXEBERRIA

Nutrizionista

Fruten eta berduren garrantzia

bat gaixotasuni aurrea hartzeko 1-3 urte bitarteko ume batek, egunean, gutxi gorabehera, 200 gramo berdura eta fruta ale bat jatea gomendatzen da. Modu ezberdinetan jan daitezke: zuku eginda, purea eginda, konpotan, gordinik, osorik... eta modu guztiak dira egokiak eta balekoak.

“Egokia eta beharrezkoa da guraso, zaintzaile, aiton-amonek... umeen aurrean fruta jatea”

Egia da beti ez dela erraza umeei zapore, testura eta itxura ezberdinak dituzten jakiak ematea, hala ere, egunero, saiatu beharko dugu, haserretu gabe, baina amore eman gabe.

Egokia eta beharrezkoa da, era berean, guraso, zaintzaile, aiton-amonek... umeen aurrean fruta eta berdurak jatea, eurei kuriositatea pizteko.

Normalean, zapore fuertekoak dituzten fruta eta berdurak zailagoak egiten zaizkie; zapore goxoagoak dituztenekin, ostera, ez dute arazorik.

Zapore xuabeagodunak: kalabaza, kalabazina, azenarioa, patata, tipula (egosi dagoenean), sagarra, platanoa, mada-ria, melokotoia...

Gomendioak umeek fruitak eta berdurak jan ditzaten:

- Behin baino gehiagotan saiatu, normala izaten da lehenengoan ez probatzea eta probatuta ere, ez gustatzea.
- Ez derrigortu, bestela umeak oroitzen txar batekin lotuko du, eta ez du nahiko berriro probatzerik.
- Berari eskaintzen diogunetik geuk ere jatea.
- Bi aukera eskaini eta berak aukeratutakoa jan egin behar duela esan.
- Forma eta kolore erakargarriak erabili. Aurpegiak, forma geometrikoak...
- Berdura + zerealak konbinazioa osasunerako egokia da, eta zerealek zapore goxoagoak dituztenez, errazagoa izan daiteke.

Duela urte batzuk Osasun Ministerioak honako leloa erabili zuen: *egunean 5 fruta edo barazki ale*. Konturatu dira dieta orekatua izateko fruitak eta berdurak oso garrantzitsuak direla. Alde bate-rik, dituzten bitamina, antioxidante, ur eta mineralengatik, eta, bestetik, zuntza dutelako eta koipe gutxi horrek asetu egiten gaituelako, eta horrenbestez, modu egokia delako pisua kontrolatzeko eta umeen loditasunak gora egin ez dezan. Azken honek ere kezka handia sortzen duenez, beste kanpaina honek ere indar handia du: *ume-etan gehiegizko pisua*.

Fruta eta berdurak kontsumitzeko beste arrazoi inportante bat ere badago: hainbat gaixotasun saihestea. Minbizia, diabetesa, kolesterola, digestio arazoak... beste hain-



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zoook Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Iratzi Agirreazaldegia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurruxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eduarne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze, Arantza Etxeberria, Iratzi Agirreazaldegia, Maddi Mendibil, Hoizea Berstein **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



ELGOIBARKO UDALA

EUSKARA

elgoibar

LAGUNTZAILEAK:



MENDIARO



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENez ez du nere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzunkizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NAN eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► SEBAS ETXERA!

Euskal preso politikoen kolektiboak eztabaida bukatu berri du, eta hor kokatzen du aurrerantzean eramango duen ildo. Preso bakoitzak bere egoera juridikoa aztertuko du, eta horren arabera, bere esku egongo da erabakiak hartzea askatasuna lehenbailehen lortzeko. Hori, beti ere, ez damu politikorik, ez polizi kolaboraziorik, eta euren ideia eta helburu politikoei uko egin gabe.

Elgoibarren Sebas Etxaniz daukagu espetxean. 74 urte egingo ditu aurten. Espainiako legearen arabera, kalean egon beharko luke, baina euskal preso politikoei aplikatzen zaien legedi bereziari esker, Asturiaseko Villabona espetxean dute gaur egun. Sei urte pasatu direnean ETak borroka armatua utzi zuenetik, Sebas bezalako pertsona bat preso edukitzeak, larri dauden 20 preso espetxean mantentzeak, sakabanaketa politikoa eusteak, oraindik ere sumario berriak irekitzeak... ase gabeko mendekua adierazteaz gain, Euskal Herriak askatasun bidean egin nahi dituen

aurrerapausoak gelditzea du helburu. Euskal presoek herriarekin egin nahi dute askatasunerako bidaia hau. Eta guri dagokigu kaletik gure ekarpena egitea. Jai hauetan ere izango dugu aukera. Jai bezperan, 23an, Presoen aldeko bazkari eta kantaldia izango da Maalako parkean. Baserritar egunean, hilaren 26an, giza-katea egingo dugu arratsaldeko zortziretan. Maalako parketik abiatuko gara eta Kalegoen plazan bukatuko dugu. Denok gaude gonbidatuta.

SARE Elgoibar

► OHARRA

Irailaren 1ean jasoko duzue hurrengo alea, jaietako berezia, eta irailaren 8an (barixakua) jasoko duzue ikasturte berriko lehenengoa. Ordura arte, ondo pasa jaietan!

BARREN

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENez edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituhaz:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetara zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaraz datorren eskutitz argitaratuko.




I. URTEURRENA

Roke Arregi Garate

2016ko abuztuaren 22an hil zen, 94 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen du I. urteurreneko mezara joan izana.

**Gu sortu ginen
enbor beretik
sortuko dira besteak.**

Etxekoak



► MIREN GUILLO ARAKISTAIN

ANTROPOLOGOA

Pedagogian eta antropologian lizentziatua eta EHUko irakaslea da Miren Guillo (Elgoibar, 1983), eta gorputz eta generoari lotutako hainbat proiektu eta egitasmotan parte hartu du eta hartzen du. Udaberrian, 'Festak, genero-harremanak eta feminismoa' liburua kaleratu zuen beste hainbatekin batera, eta liburua hartu dugu aitzaki gureru ekartzeko. Taldean ondutako liburua da 'Festak, genero-harremanak eta feminismoa, norbanako eta kolektibo ugariak parte hartuko dutelako, baina berak koordinatu du. Izenburuan jaso bezala, festak, generoa eta feminismoa dituzte gai nagusi liburuan eta hainbat gogoeta eta esperientzia bildu dituzte. Haietako batzuen inguruan aritu gara berarekin.

- AINARA ARGOITIA -



♦ **Genero harremanak, festak eta feminismoa uztartu dituzu(e) liburuan. Non du abiapuntua liburu honek? Zerk bultzatu zaituzte hau idaztera eta zein izan da zure egitekoa?**

2015eko uztaillean Udako Euskal Unibertsitatearen ikastaroetan Antropologia Sailean geunden zenbait ikertzailek festa eta generoa ardatz hartuta ikastaro bat egitea erabaki genuen. Horretarako, festak, genero ikuspegiak analizatu, tokian tokiko zenbait etnografia ezagutu, eta martxan dauden zenbait prozesu ezagutu genituen, gaiaren baitan begirada zein testuingurua zabaltzeko eta sakontzeko asmoz. Hala, elkarrizketa bat sortu zen kultur sortzaile, ikertzaile, mugimendu feminista eta jaien antolatzaileen artean. Ikastaroa adierazpide ezberdinen elkarrizketa moduko bat izan zen; eta liburuan, elkarrizketa horretan sakontzen dugu. Idazteaz gain editore lanak egin ditut nik, eta guztira 30 egiletik gora parte hartu

“Festei bakarrik begiraturuz gero, ez dugu festetako indarkeria amaituko”

dugu, norbanako zein kolektiboek. Esperientziaren lehen lerrotik ari dira zenbait; teorikoagoak beste zenbait. Denon artean festen ertz ezberdinei helitzea nahi izan dugu.

♦ **‘Ez beti da ez’. Nekea ere sortzen du beti alarma egoeran egon behar honek. Ez zaizu iruditzen?**

Festez eta generoaz aritzean, garrantzi handia hartzen du indarkeriak, errealtatea gogorra delako. Eta zentzu horretan garrantzitsua da festetako indarkeria motak analizatzea, askotarikoak daudelako. Has gaitzke eraso sexista, jazar-

pen eta abarrekin, eta joan gaitzke, intentsitate ezberdinen arabera, bestelako indarkeriak ere ikusten: tradizioaren ize-nean sortzen diren ideologia baztertzailerak, aisialdiaren ikuskera androzentrikoa, oholzetako bazterkeria... Diozun alarma egoera horrek berak ere emakume izendatutako gorputzok beldurrean sozializatzea dakar, eta horrek ere dibertsiorako aukerak mugatzen ditu. Lan garrantzitsua da indarkeria horietan era zehatzean sakontzea, analisiak fintzea, politika konkretuak aktibatzea eta erantzun sozialean sakontzea.

♦ **Emakumeen kontrako irainak, eraso fisikoak, bortxaketak... sistematikoak dira, eta bistan da jaietan are gehiago igartzen dugula oldarraldi hori. Baina indarkeria matxistaren kontrako kanpainak hein handi batean erasoak salatzea mugatzen dira. Ez zaizu arriskutsua iruditzen emakumea beti biktima bezala agertze hori?**

Jaietan gertatzen dena da komunitatearen ezaugarri guztiak islatzen direla, eta sarri, egunerokotasunean horren latente ez dauden prozesuak ere azaleratzen direla. Ospatzen dituen jendartearen ispilu dira festak, edo batez ere, sortzen dituen jendartearen isla askotarikoak uztartzen, nahasten eta gurutzatzen dira festetan; komunitatearen mundu ikuskerak askotarikoak izan daitezkeelako. Kolektiboki bizi-tzen diren une biziak, bertan azaleratzen dira afektuak, aliantzak, konplizitateak, eta baita gatazkak eta kontraesanak ere, eta hor dugu indarkeria matxista, festetan modu partikularrean garatzen dena. Egun indarkeria desberdinak gehiago salatzen dira, baina salatzen direnean ere, maiz, instituzioek eta medioek biktimizazio prozesua indartzen duten moldeetatik egiten dute, fokua emakumeen erantzuteko gaitasunetan jarri gabe. Baina badakigu ahalduz prozesuak gertatzeko ezinbestekoa dela emakumeen erantzuteko gaitasuna bisibilizatzea, agentzia hori erakustea. Ikuspegi feministatik, jazarpen egoera askotarikoen aurka sortzen diren ekimen anitzetan begirada paratzea hautu emankorra izan da. Liburuko zenbait testuk azken urteetan indarkeria-prozesuen eta horien erantzun zein aurre-lanketetan jazotako aldaketak aztertutuz. Bestalde, jaiak eta generoari buruz mintzatzean indarkeria sarri gai nagusi bada ere, hain justu indarkeria hori gaintzeko bestelako iruditegiak eta praktikak saiatu behar ditugu, jai eredu inklusiboak eta askeagoak badirela sinestu eta gorpuzteko; eta hortik dator plazaren gogoeta.

♦ **Tira, hala ere, erasoak salatzeko jarrrera hartu dugu behintzat. Zein lagungarri da gure instituzio, hedabide eta**



azken batean botere-guneek jarrera hori hartzea?

Halaxe da, azken urteetan aurrerapauso handiak eman dira: kanpainak, dekalogoak, erasoen erantzun bateratuak antolatuzko protokoloak... Hauek beste egoera batzuetan kokatu gaituzte. Aldaketa eta egoera horietan pentsatu eta dauzkagun erronkei begiratzen saiatu gara artikulu desberdinetan. Ezinbestekoa da lanketa hauekin jarraitzea, norabideetan fintzea, eta batez ere, halakoak izan daitezen aitzakia sakoneko genero lanketak baliatzeko. Izan ere, festei bakarrik begiratzuz gero, ez dugu festetako indarkeria amaituko; begiratu beharko diegu egunerokotasunean egiten ditugun politika desberdinei, eta oro har, gure bizimodu sozialaren antolakuntzari, horietan sortzen eta erreproduzitzen baitira desberdinkeria sozialak.

“Eguneroko politiketan eta antolakuntzan sortzen eta erreproduzitzen dira desberdinkeria sozialak”

♦ **Jai eremua azterketarako esparru pribilegiatua dela defenditzen duzue, baitetik, genero ikuspegiatik gizaratean orokorrean ematen diren gatazkak hor ere badaudelako, eta bestetik, egoera horiei aurre egiteko eta bestelako harremanak eraikitzeke ahaleginak ikus daitezkeelako. Adibidez?**

Esan bezala, festetan bizitza sozial kolektiboa egituratzeko moduak ezagutzen ditugu, eta horregatik, leiho bat dira jendartearen dauden generoarekin lotutako diskurtso eta ideologiak behatzeko. Era

berean, jendarte horren eraldaketarako eta disidentziarako estrategiak ezagutzeko aukera ere sortzen du. Esaterako, ikusten dugu nola aldarrikapenek ere lekua izaten duten festetan, eta badauden, batzuetan, aisialdi zein kultur ereduak, kontsumoaren, edota ekonomia sozialaren inguruko gogoetak, eta horiek praktikan jartzeko guneak eta ekimenak sortzen diren. Adibide ditugu feministatik eraikitzen diren espazio seguruak: gune bat denontzako segurua izatea nahi badugu, horrek aurrelanketa oso bat dakarrelako. Eta behin espazio seguru batean sentitzen garenean, horrek festan egoteko, harremantzeko, dantzatzeko, kontsumitzeko eta egoteko modu askeago batera garamatza, non elkar errespetuz eta ardua kolektiboz jardungo dugun.

♦ **Jaiak eta plazera eskutik doaz, baina irudipena daukat emakumeek gero eta beldur handiagoarekin bizi ditugula jaiak. Zertaz ari gara plazera diogunean?**

Kontua da batzuek plazererako aukera gehiago izan ohi dutela. Gainera, plazera bera birpentsatu behar dugu ikuspegi feminista batetik, plazerak ez delako esan nahi “dena libre denik”. Problematizatu behar da plazeraren gaia; bestela, kontzeptu zaila da, denon plazera lortzeko sarri lan asko egin beharko dugulako eta gainera logika kapitalistak asko erabilia delako. Birpentsatu egin beharko litzateke gozamina bera; erronka bat izan da liburuan hori: birpentsatzea plazera, birpentsatzea egiten ditugun lanak eta lan moduak, eta batez ere, birpentsatzea festak indarkeriaz harago. Izan ere, emakumeen bizi-baldintzak eta oro har gorputz disidente ororen boterea mahai gainean jartzen ditu plazeraren lanketa politikoak, plazera badelako berarentzat eraldaketa bide eta ahalduz tresna.

♦ **Festa, tradizioa, erritoak... Aldaketa sakonak planteatzen diren bakoitzean, kontraktasunak azaleratzen dira, baita ustez aurreratutzat ditugun sektoreetan ere. Adibide asko jar genitzake, baina oihartzun handieneko bat aipa-**

tzearren, hor dugu Alardea. Zer da zilegi tradizioaren izenean?

Batzuetan egiten dira kulturaren irakurketa esentzialistak eta erlatibistak, baina kultura ez da molde homogeen eta harmonikoa, dinamikoa da, etengabeko negoziazioan eta birdefinizioan dagoena. Tradizioa kontzeptuaz eta erabileraz ere asko hausnartu da, eta autore askok landu moduan, tradizioa bera ere etengabeko bilakaeran dago. Beste kontu bat da errituetan zein aldaera onartzen diren eta zeintzuk ez, aldaketa horiek, eragina dutelako botere-harremanetan, sozializazio bideetan, ospeetan eta pribilegioetan. Festa eremuan badaude tradiziozko errituen harira sortutako zenbait genero gatazka. Alardearen tradizioan, esaterako, aldaketa asko eman izan dira, baina emakumeen parte-hartzea gatazkatsua da, eta sarri, modu sutiletan, tradizioaren irakurketa hegemonikoak desberdinkerien justifikaziorako ere erabili daitezke. Bestalde, diozun moduan, aurreratutzat ditugun sektoreetan ere kontraesan ugari agertzen zaizkigu. Desberdinkeria sozialak –generokoak, xenofoboak, homofoboak...– produzitzen diren gizarte egitura da gurea, eta horiek kontzienteki landu ezean, zenbait ideologia eta jarrera naturalizatzen ditugu. Egunerokotasunean ditugun espazio guztietan sortzen diren botere-harremani erreparatu beharko diegu.

♦ Arriskua kanpotik datorrela iruditzen zaigu sarri, askotan hala delako, baina kontziente al gara, jarrera matxistak zuzendu beharra denok dugula, gizon zein emakumeok?

Egun badugu berdintasunaren diskurtso politikoki zuzena, eta hori aurrerapauso garrantzitsua da, horri esker gauza asko eta desberdinkeria asko ez-legitimotekin direlako. Baina horrek ez du esan nahi sakoneko lanketak egin ditugunik, eraldaketa prozesuak konplexuagoak izaten direlako. Denok egin behar dugun etengabeko deseraikuntza eta eraikuntza lana da. Mendebaldeko genero-sistema pribilegio eta galera sistema da; ez soilik emakume edo gizon sozializatzen gare-

lako, baizik eta generoarekin batera uzartzen zaizkigulako bestelako aldagaiak, esaterako, klasea, jaioterria, sexualitatea, hizkuntza, adina... Botere harremanetan leku batean edo bestean kokatzen gaituztenak. Eta ez baditugu ditugun pribilegioak kuestionatzen, eta gaiarekin izan ditzakegun erresistentzia propioak ulertu eta gainditzen, nekez lortuko dugu gizarte justuagorik. Prozesuek eskatzen dute norbanakoan zein kolektiboan gogoeta egitea eta eguneroko gauza asko aldatzea, hala, elkarrekin haziz.

♦ Kosta egiten da indarkeriarik gabeko gizartea irudikatzea eta zaila, era berean, denon plazera erdigunean jarriko duten festak irudikatzea. Zeintzuk liraketeke jaiak parekideagoak eta gozagarriagoak egiteko gakoak?

Nik uste dut plazeraren kudeaketa kolektibo justuak birpentsatu nahi badira, beharrezkoa dela, batetik, festa posible egiten duen lan ororen aitortza, eta bestetik, lan banaketei erreparatzea eta oro har, beharrak eta lanak ere birpentsatzea. Horretarako, irudikatu beharko dugu zer nolako festak desio ditugun eta zer behar dugun festa horietarako. Nola antolatu era kolektiboan denok gozatuko ditugun eta espazio seguru izango diren festak? Egiten ditugun egitarauak herritar guztiengan pentsatuak al dira? Herritarron aniztasuna aintzat hartzen dugu gozamen kolektiboaz pentsatzean? Nolako jai eredu nahi dugu?

♦ Emakumearen ikusgarritasuna bilatzen da, eta aztertzen dugu nortzuk dauden agertokian eta nortzuk behean. Baina egoteko moduak aztertu ezean ez al daukagu arriskua berriz ere azalean gelditzeko?

Emakumeen (eta oro har, hegemonikoak ez diren pertsonen) presentzia plazetan helburu garrantzitsua da. Baina horrez gain, ezinbestekoa da plazetan jorritzen diren gaietan, antolakuntzaren baitan sortu ohi diren harremanetan, erabiltzen ditugun iruditegietan, erreferentzietan edota ekimen aniztasunean, klabe feministetan pentsatu eta aurrera egitea. Gainera, kultur adierazpideen disidentzia



Egileak: Miren Guillo Arakistain (Koord.), Maggie Bullen, Xabier Kerejeta, Mari Luz Esteban, Onintza Enbeita, Beatriz Moral, Miren Gaztañaga, Laura Muelas, Iraitz Lizarraga; Miren Aranguren, Maider Fernandez eta Leire Lopez (Mefst!); Idoia Arraiza, Oihana Etxebarrieta eta Idoia Trenor (Emagin eta EHBf); Maria Ajuria eta Araitz Rodriguez (Farapi Koop. Elkarte); Kattalin Miner eta Ana Txurruka (Medeak); Mireia Delgado eta Isabel de Blas (Eragile moreak); Pili Alvarez eta Marta Luxan (Joxemi Zumalabe); Elena Garcia (Mamiki konpartsa); Maitane Maritorea, Aitziber Zapain, Elurre Iriarte, Garbiñe Elizegi, Edurne Arrieta (Plazara dantzara).

potentzialtasuna handia eta berezia da, besteak beste gure emozioak eta gorpuzta zeharkatzen dituztelako.

♦ Hastear dira sanbartolomeak. Zein mezu zabalduko zenuke?

Hasteko, egunerokotasunean lanean jarraitzea. Elkarrenganako errespetua eguneroko hausnarketetatik gorpuztuko dugu eta hor autokritikoak izan behar gara denok, norberarenetik hasi eta egitura sozialetaraino. Eta festetan ahalik eta espazio seguruena sortzeko lanetarako egitea. Garrantzitsua izango da festetan antolakuntza prozesuei begiratzea, nolako egitarauak ditugun, nolako harremanak sortzen ditugun, nortzuk hartzen dugun parte... Eta behin parrandan, elkar errespetatu, elkar zaindu eta ederki pasatzea.

‘Ezeta ezeta da!’ kanpainan bat egin dute Elgoibarko Udalak eta Maalako Jai Batzordeak

Indarkeria matxistari ez. Mezua argia da. Errespetuan eta askatasunean oinarritutako harreman batzuen alde, Ezeta ezeta da! leloa erabiliko du Elgoibarko Udalak sanbartolomeetan, jaietan dena ez dela zilegi gogorarazteko, eta herritarrei eskatu die erasotzat har daitezkeen eta errespetuzkoak ez diren jarrerak edo jokaerak salatzeke. **Maalako Jai Batzordeak ere bat egin du eraso matxisten kontrako kanpainarekin, eta hainbat ekintza burutuko ditu bere aldetik.**

Eskari garbia egin diete herritarrei: ez onartu eraso matxista bakar bat ere, eta ikusi edo jasanez gero, salatu. Garbi dute jaiak egunero gertatzen denaren isla direla eta botere-harremanak errepikatzen direla festetan ere, eta horregatik, herritar guztien konplizitatea eskatu dute emakumeen aurkako eraso eta desberdintasun egoerei aurre egiteko. Dei egin diete emakumeei jaiak beren egiteko, eta erasoei aurre egiteko; beldur barik jarrera hartzeko eskatu diete herritar guztiei; hau da, errespetuan, berdintasunean, askatasunean eta indarkeriaren arbuio sendoan oinarritutako jarrera hartzeko eta modu berean erantzuteko.

Eta ez genuke nahi inork premiarik izaterik, baina erasoren bat gertatuko balitz biktimak nora jo behar duen argi izan dezan eta babestua senti dadin, hainbat telefono zenbaki

gogoraraziko ditu Udalak, eskuorrietan eta jaietako programan, *Ezeta ezeta da!* mezurarekin batera. Era berean, *Ezeta ezeta da!* lelodun txapak eta Euskadiko Gazte-ria Kontseiluak sortutako pultsera moreak ere banatuko ditu jaigunean, eta Txiki Egunean, photo call-a ere jarriko du kalean, indarkeriaren kontrako borroka bistaratzeko asmoz. Kalebarren plaza inguruan jarriko dute photo call-a, 12:00etatik 15:00ak bitartean. Horrez gain, Berdintasun Saitetik gogorazi dute 2012az geroztik Udalak aktibatua duela emakumeek jasaten dituzten eraso matxistak salatzeke eta haiei erantzuteko protokoloa –Emakumeen Kontseiluan adostutako protokoloa da–.

Maalako Jai Batzordeak

Maalako Jai Batzordearen baitan talde feminista ere sortu dute aurten, bereziki sanbartolomeei begira, eta hainbat ekintza iragarri dituzte, Bidadane Gonzalez taldekideak jakinarazi duenez. Batetik, eta ohi legez,

JAIETAN ERE...



hainbat pankarta sortu eta eskegiko dituzte, eta bestetik, zapi moreak ere aterako dituzte. Era berean, postontziak ere jarriko dituzte txosnagunean, herritarrek matxistoztat identifikatzen duten guztia sala dezaten. Eta azkenik, kantu sexistarik gabeko playlist bat ere osatu dute, jaiguneetan zabaltzeko.

LARRIALDIETAKO TELEFONOAK

Larrialdietarako
telefono zenbakia:
112

24 orduko telefono
bidezko arreta zerbitzua:
900 840 111

Udaltzaingoa:
943 741 394

Udaleko
Berdintasun Saila:
943 741 050




elgoibar ikastola

jai zoriontsuak!

www.elgoibarikastola.eus



Amaro Eraikuntzak

679 155 980 / 609 324 517

estructurasamaro@gmail.com

Kalebarren plaza, 1 - Elgoibar

Ondo pasa jaietan!



KARAKATE
Jatetxea

943 741 244

Olasope, 1 - Elgoibar

karakatejatetxea@hotmail.com



ims
AHOLKULARITZA

www.ims.eus

943 740 855

- Kudeaketa sistemen mantentze-lanak eta laguntza
- Aholkularitza zerbitzua • Prestakuntza



DOÑA MERCEDES

DENDA

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
943 742 652

OBRADOREA

Olaso, 55 - Elgoibar
943 742 137

Ondo pasa jaietan!



Gozo goza jaiak. Eraso sexistarik ez!

elgoibar

ehbildu



1964

Txaro Eizagirrek ekarri du argazki hau BARREnera. 1964ko urtarrilean aterata dago, Mendaron, mojen komentu aurrean. Ikus dezagun nortzuk diren argazkiko neskatila hauek. **Gorengo lerroan:** Mari Tere Garate, Maria Jesus Azpiazu, Belen Azpiazu, Pili Hernandez, Jeranita Santamaria, Inmaculada Urbieto eta Mari Tere Lazarobaster. **Bigarren lerroan:** Maria Isabel Landa, Maria Antonia Lazarobaster, Maite de Diego, Itziar Lazkano, Maria Jesus Urbieto, Mari Karmen Zulaika eta Begoña Lariz (+). **Hirugarren lerroan:** Elisabet, Mari Jose Arriola, Maria Asun Olazabal, Blanka Zuloaga, Mari Tere Iriondo, Ramoni Iturria, Clemen Hernandez eta Arrate Landa. **Laugarren lerroan:** Amaia Landa, Elena Garate, Inmaculada Hernandez, Txaro Eizagirre eta Maria Angeles Olazabal.

administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzko Enpresa Administrazioen Kontseilua



**ROSA Ma
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Jakin nahiko nuke legez edozeinek erabili ditzakeen ala ez erakuntzako eremu komunak.

Elementu edo gune komunak berez jabekide guztiei zabalik daudenak dira. Baina eremu komunetan espazio ugari sartzen dira: fatxadak, kanpoko estaldurak, terrazak, balkoiak, leihoak, peorak, eskailerak, atariak, tranpalak, patioak, kanalizazioak eta ur beroaren, aire egokituaren eta berogailuaren instalazioak, segurtasunerako instalazioak, atezain automatikoak, antena kolektiboak, igerilekuak, kirolerako pistak eta aisialdirako beste zenbait espazio.

Printzipioz, eremu komun guztien erabilera ezin da pribatiboa izan. Erabilera pribatibokoak dira dauden lekuagatik jabe batek edo jabe jakin batzuek bakarrik erabili ditzaketenak. Adibidez, argi-patio jakin batzuk, atikoetako terrazak... Normalean, etxe sustatzaileak zehazten du zeintzuk erabili ditzaketen horiek. Horrela ez bada, jabekideek eurek erabaki eta zehaztu beharko dute zeinek erabili ditzakeen eta zeinek ez.

AHOLKUA: Denek erabili ezin baditzakete ere, erabili ditzaketen bizilagun horiek ardura hartu beharko dute espazio horiek behar bezala zaintzeko eta gainerako jabe guztien eskubideak errespetatzeko. Gerta daiteke eremu komun hori erabiltzea daukan jabe batek aldaketaren bat egitea eskatzea, beti ere horrek eraikinaren kontserbaziorako edo bizigarritasunari edo irisgarritasunari kalterik egiten ez badio. Espazio komun hori aldatzeko aukera izango luke beraz, baldin eta eraikinari kalterik egiten ez badio eta gainerako jabekideek ontzat ematen badute.



JON BASURTO

C.D. ELGOIBARREKO PRESIDENTEA



“Haundi herriko jokalariekin egonkortzea da gure helburua”

C.D. Elgoibarren urtea izaten ari da aurten, eta jaietan ere izango du lekua mendeurrenak. Ez edonolakoa, jaiak hasteko suziria piztuko baitute udaletxeko balkoitik. Mendeurrenaz eta joan zen denboraldiaz balorazioa egin du uztailean presidente izendatu zuten Jon Basurtok. Jaiotzez debarra den arren, barru-barruan darama C.D. Elgoibar eta bere bizitzan oso garrantzitsua izan dela dio. 14 urterekin hasi zen taldean jokatzeko, eta infantil, jubenil eta erregional taldeetatik pasatu ostean, Haundirekin ere jokatu zuen. Ondo gogoan ditu Bigarren B Mailan jokatu zituen bi partidak. Jokatzeari laga eta gero Elgoibarko Infantil taldea entrenatu zuen, gaur egun Haundin dabilzan jokalaria asko izan zituen bere aginduetara. Presidente kargura “erabat” ezustean iritsi dela aitortu arren, ilusio handiz ekin dio lanari.

- ASIER ORBEA -

◆ Zein da denboraldiaren balorazioa?

Haundi jaitxi izanak pisu handia dauka, nola ez, denboraldiaren balantzea egiterakoan. Triste gaude, desilusio handia izan baita. Haundirena aparte lagata, gainerako taldeek egin dituzten denboraldiekin oso gustura gaude. Emaitzez harago, zuzendaritzako kideok helburu argi batzuekin etorri ginen hona, eta batzuk betetzen ari gara.

◆ Zein dira aipatu dituzun helburu nagusi horiek?

Gure helburu nagusienetakoa Haundi jokalaria elgoibartarrez osatzea da, herriko jokalaria izan daitezela taldearen muina. Ekonomia saneatua edukitzea ere helburu garrantzitsua da. Jasan-garria izan behar du aurrekontuak. Ezin dugu urtero 10.000 edo 15.000 euroko zuloa egiten jarraitu. Batetik, murrizketak egin ditugu. Lehena entrenatzaileen soldatak jaitzea izan zen. C.D. Elgoibarko entrenatzaileak borondatezkoak izan behar dutela

sinesten dugu. Soldata sinboliko bat jarri genien eta guztiak onartu zuten. Beste hainbat gauzatan ere egin ditugu murrizketak. Lehen denboraldian emaitza oso onak eman dituzte erabaki horiek eta ildo beretik jarraituko dugu. Emakumeen taldea ateratzea ere helburu garrantzitsua da klubarentzat, berdintasuna bultzatu nahi dugulako. Hutsetik hasi gara ordea, eta zaila izango da. Dozena bat neskak eman dute izena Futbol Eskolan eta beste batzuk ere etorriko dira aurten. Futbol Eskola indartzea izan da, hain justu, beste erronketako bat. Eta lortu dugu. C.D. Elgoibarreko presidente izan diren lagunei egin genien omenaldian esan nien igotzeko asteazkenetan Mintxetara, eta ikus dezatela nola egoten den. Gozamina da 110 neska-mutil futboleko jokatzeko ikustea. Ahal izan dugun erraztasun guztiak jarri ditugu gaztetxoak futbolera erakartzeko. Ez dugu nahi arrazoi ekonomikoengatik ume bakar bat ere Futbol Eskolatik kanpo geratzerik. Era berean, jubenil

mailara arte formazioari garrantzia ematea da gure asmoa eta adin horretatik aurrera lehiakortasuna sustatzea. Konturatu gara teoria hori errealitatera eramatea ez dela horren erraza. Zaila da partida egunean denei jokatzeko aukera ematea. Gutxika barneratu behar da ideia hori eta horretan saiatzen jarraituko dugu, ume guztiak gozatzeko aukera berdinak izan ditzaten.

♦ **Haundi sekula egon den mailarik baxuenean dago, Erregional Preferente Mailan. Zein izan dira arrazoiak hau gertatzeko? Zerk huts egin du?**

Urteko batzar orokorrean bazkideei azaldu genien moduan, zuzendaritzak jaitzieraren erantzukizun guztia hartzen du bere gain. Arrazoiak? Aurreko denboraldian bost jokalaria elgoibartar zeuden Haundin eta hamabi izan dira aurten. Beharbada aldatuta handiegia izan da urte batetik bestera egiteko. Gainera, kategoriatik txikiagatik galdu dugula esan behar da. Aurten galdu dugun maila berreskuratzea izango da helburua eta herriko jokalaria izango dira taldearen oinarria, fitxaketa batzuk egingo baditugu ere. Inguruko zenbait taldek: Anaitasuna, Arrasate, Amaiak Bat, Mutriku... eginiko apustua kopiatzen ari gara. Alegia, herriko jokalaria izatea taldeko oinarria. Azkoitiko Anaitasunak ere bide hori hartu zuen eta haiek ere gu orain gauden kategorian egon ziren. Apustu hori egin eta gero talde horietako askok galdu zuten maila. Talde berdina mantendu dute, ordea, zenbait denboralditan eta batzuei emaitzak ailegatu zaizkie. Ezin dugu ziurtatu datorren urtean igoko garenik, baina helburua hori da: taldea herriko jendearekin egonkortzea.

♦ **Nabaritu duzue presiorik mendeurrena ospatzen ari zirenen urtean maila galdu izanagatik?**

Jendeak hori ere aurpegiatu edo leporatu digu, ia nola jaitziko ginen mendeurrena ospatzen ari ginen urtean. Pena da, izorratuta gaude, baina halakoxea da kirola. Gure eskuetan zegoena egiten saiatu gara, ...eta kitto! aurrera jarraitu behar da. Beste batzuei ere gertatu zaizkie horrelakoak, Arrasate ere mendeurrena bete zuen urtean jaitzi zen.

♦ **Nola bizi dute jokalaria elgoibartarrek Haundin jokatzea?**

Nire ustez jokalariek ez daukate sentimendu hori barneratuta, ez behintzat guk gure garaian geneukan moduan. Duela 20 urte Haundiko jokalaria izatea gauza handia zen Elgoibarren, historia oparoa duen kluba baita. Haundin egotea ez da beste edozein klubeko ekipotan egotea modukoa. Haundin egotea Haundin egotea da. Hor dago kokxa, lehen ez zegoen hori irakatsi beharrik. Gaur egun, aldiz, sentimendu hori sortu beharra dagoela ikusten dut. Gai hau jokalariekin landu dugu eta denboraldi amaieran jarrera oso ona ikusi diegu. Jaitzieraren erantzule sentitu dira, eta zerbait piztu da eurengan. Taldearekin daude jokalaria, eta bai ala bai altxatzea nahi dute.

♦ **Ze helburu jarri diozue entrenatzaileari, Omar Aizpururi?**

Berari ere esan diogu helburua mailaz igotzea dela, oso zaila dela badakigun arren. Haundiri dagokion maila gorago dagoela esan eta pentsatzearekin bakarrik ez da igoko taldea. Edozein dela kategoria oso zaila da igoera lortzea. Eta gainera, badakigu Eibar Urki talde indartsua egiten ari dela, eta aurkari gogor bat izango dugula auzoan. Zuzendaritza honen erronka nagusia, baina, taldeari egonkortasuna ematea izango da. Ez dugu nahi joan den denboraldikoa errepikatzerik, hiru entrenatzaile pasatzea Haundiko aulkitik. Klub barruko arazo batzuk direla medio, akats asko eduki genituen entrenatzaileekin, eta hutsegite horiek ez erre-pikatzen saiatuko gara. Egonkortasuna behar dugu.

♦ **Zergatik aukeratu zenuten Omar?**

Bere izaera gustatzen zait batez ere. Irabazlea da, eta grina hori transmititzen daki. Izaera gogorrekoa da, 25 urte bakarrik dituen arren. Bost urtean gidatu du senior talde bat eta jarraikortasun hori lortzeko zerbait izan behar du.

♦ **Ekonomia alorrean 14.892 euroko superabita aurkeztu zenuten batzar orokorrean. Nola lortu duzue?**

Lehenago esan dudana moduan gastuak murriztetik lortu dugu klubak azken urteetan izan duen lehen superabita, baina baita sarrierak handituta ere. Publizitatetik 40.000 euro inguru jaso ditugu, aurreko urteetako sarrierak bikoiztuz, gutxi gorabehera. Alor horretan lan handia egin dugu eta guregan konfiantza jarri duten enpresa, komertzio eta taberna guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Babesle indartsu bat ere badugu, Mendaroko MYL enpresa. Gainera, garrantzitsua da hurrengo urteetarako konpromisoak lotu ditugula, batzuekin bi urterakoak eta beste batzuekin lau urterako konpromisoak. Udaletxearen eta erakundeen laguntza eta babesba ere jaso dugu, eta eskertzen diegu.

♦ **Mintxetako harmailak betetzeko saiakera bat baino gehiago egin duzue.**

Beheko mailetan dauden jokalariei txikitatik muineratu nahi diegu Haundi talde handia dela. Sentimendu hori piztu asmoz, jokalarientzako eta euren gurasoentzako bazkariak antolatu ditugu, eta denok elkarrekin igo izan gara gero Mintxetara, txurigorritz jantzita. Herrian gero eta ume gehiago ikusten dira C. D. Elgoibarren kamisetarekin eta pozgarria da guretzat. Kamiseta mordoa saldu ditugu. Aurreko urteetan baino ikusle gehiago izan dira aurten harmailetan, baina ez askoz gehiago.

♦ **Nola bizitzen ari zara mendeurrena ospatzeko ekintzak?**

Mendeurrena ospatzeko sortutako Batzordea izugarritzko lana egiten ari da, eta merezi dute aitortza hori. Orain arte antolatutako ekitaldiak arrakastatsuak izan dira oso. Herriko Antzokian egin zuten aurkezpena asko gustatu zitzaidan. Argazki erakusketa aparta izan zen. Futbola Plaza Txikira eta Plaza Handira jaitzi genuenean ere oso polita izan zen, eta urtero egitea nahiko genuke. Realaren aurkako partida... eta orain, herriko jaiak hasteko aukera ohore handia izango da.

“Ez dugu nahi arrazoi ekonomikoengatik ume bakar bat ere Futbol Eskolatik kanpo geratzerik”

▶ Imanol Konde, ia 80 urtez C.D. Elgoibarreko bazkide

Familia handia da C.D. Elgoibar, eta familia horren oinarria bazkideak dira. Klubaren zutoina osatzen duten horietako bat da Iñaki Konde (Elgoibar, 1928), klubaren aurreneko bazkideetako bat. 11 bat urte zituenean egin zen bazkide, Francoren aginduz klubak izena aldatu aurretik. Ordura arte Elgoibar Football Club zena C.D. Elgoibar izatera pasatu zen, baina inposizio hori gustuko izan ez arren, bazkide izaten jarraitu zuen Kondek, klubak izena edozein zuela ere herriko futbol taldeko parte izan nahi zuelako. “Bihotzean daramat kluba eta urte hau espeziala ari da izaten, 100 urte ez direlako beti betetzen”.



Espainia bat, handia eta librea goiburuean, inguruko nazionalismoen aurkako errepresio gogorra hasi zuen Francok. Gaztelania ez zen beste hizkuntzatan zeuden izenak aldatzeko agindu zuen, eta hilabeteko epea eman zien klubei horretarako. 1942. aldera izan zen. “Ni neu ere Manuel izan nintzen sasoi hartan. Soldadutzan iritsi zitzaion nire neskalagunak neuretzat idatzitako karta bat kapitanari, eta han hasi zen Imanol zein ote zen galdezka. Neu nintzela argitu nion, eta berak ezetz, ni Manuel nintzela. ‘Yo en el juzgado de Elgoibar soy Imanol, pero Franco me ha mandado cambiar el nombre’. Geroztik beti Imanol esaten zidan”.

Kondek gogoan dauka ez zela begi onez hartutako erabakia izan herrian, eta ordura arte Elgoibar Football Clubeko bazkide zirenetako batzuk bazkide izateari ere laga ziotela, suminduta.

Ordurako bazkide zen bera. “11 bat urterekin egin ninduen bazkide Fermin Barreneixek, *Fermin Artetxek*. Gaur udal txeko bulegoak dauden lekuan zuen orduan bulegoa klubak, Errosario kalean, Cafe la Amistad tabernaren gainean, eta gu han ibiltzen ginen gora eta behera jolasean. Halako batean etorri zitzaigun Fermin haserre eta han ibili nahi bage-

nuen klubeko bazkide egin behar ginela bota zigun, eta denok apuntatu ginen”. Futbolearen sasoi hartantxe hasi zen jokatzen, eta 14 bat urterekin, Elgoibar Txikin hasi zen, harrobiko taldean. Baina, bizitzako onenean, iritsi zitzaion Imanoli ere soldadutzara joateko sasoi, “ordena”. Etena bizitzan. Cartagenako Itsas Infanteriara bidali zuten aurrena, eta han denboraldi bat egin ostean, Madrilgo Itsas Ministeriora. Soldadutzan egin behar zuen denboran bazkide-tza-kuota Konde-tarren tabernan kobratzeko esan zien klubeko arduradunei, baina haiek ezetz. Ez zela beharrezkoa, bueltan hasiko zitzaizkiola berriro kobratzen. Eta soldadutzatik bueltan berriz joan zitzaion Fermin ia C.D. Elgoibarko bazkide izan nahi zuen galdezka. “Ni banaiz; zeuk egin ninduzun”, esan nion. Ordurako izena aldatuta zeukan klubak, baina neri berdin zitzaidan. Ni beti izan naiz bazkide eta izango naiz. Badago gutxienez beste bat umetan neurekin batera egin zena sozio: Felix Agirrebeña”.

Jesus Egañaren erreleboa

Bazkide ez ezik, jokalaria ere izan da Konde. Elgoibar Txikin hasi zen atezain lanetan, eta urte batean gol gutxienez jasotako atezaina ere izan. Jesus Egaña zen sasoi hartan talde handiko

atezaina, baina Granada taldetik deitu ziotenean, Imanol hartu zuten haren ordezkari. 20 urte egiteko zela, apirillean, laga behar izan zuen futbola, derrigorrean. “Soldadutzarako deitu ninduten”.

“Sentimendu handiak” lotzen du Klubarekin, eta halakotan ohi denez, denetarik bizi izan du: une gogoangarri asko eta tristeak ere bai. “2B mailara igo gineneko eguna ez dut sekula ahaztuko eta Erregionalera jaitsi ginean egin genituen negarrak ere ez. Orduan nire semea, Julen, zen gainera presidentea”. Dozenaka oroitzapen aipatu ditu, besteak beste taldea jarraituzera hara eta hona kamioan egin zituzten ibileretakoak, baina bat bereziki gogoan du: Ipuru futbol zelaiaren inaugurazio egunekoak. C.D. Elgoibarrek 0-2ko emaitzarekin irabazi zion Eibarri. “Eibartarrekin beti izan dugu pike handia. Elgoibar beti izan da gehiago, baina Eibarren diru gehiago izan dute beti, eta estutzen gintuzten, baina hala eta guztiz ere, Elgoibarrek irabazi zuen Ipuruan. Hala kantatzen genien guk: *Eibarren diru asko/jendea ugari/ baina ezin irabazi/ elgoibartarrerri*. Eta beste hau ere bai: *No llores vida mía, no llores mi ilusión/ en el campo de Ipuru/ Elgoibar campeón*”.



elgoibarko herri eskola



50

50 urte zuekin bidaiatzen

Ondo pasa
sanbartolomeetan!

urteurrena



Pol. Ind. Igarualdea, 27
20850 Mendara - Tel. 943 741 677
www.daribus.com - clientes@daribus.com



Enpresetarako Software-an espezializatuak



Ondo pasa jaietan!

Albitxuri Industrialdea, 3i
Tel.: 943 748 105
info@softlan.biz
www.softlan.eus

EEA

Ondo pasa sanbartolomeetan!



“Jaietatik zezenak kenduko balizkidate ez dakit etorriko nintzatekeen”

- MARIAJE IRANZO -

▶ MARIAJE IRANZO ETA EIDER CERDEIRA ZEZENZALEAK

Ama-alabak dira Mariaje Iranzo eta Eider Cerdeira. Jaietan, sokamuturra dagoen egunetan prest izan ohi dira korrika egiteko, baina zezenaren adarrak, urrutian ederragoak direnez, distantziatik begiratzen diete. Ume-umetatik gustatu izan zaizkio zezenak Mariajeri eta auzoetako jaietan ibiltzen zen lagunekin zezenetan. Eiderri amak sartu dio zezenenganako zaletasuna eta sokamuturra ez ezik zezenen bueltako beste kontuen zale ere badira biak.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

♦ Sokamuturrean ibiltzen zarete jaietan. Zein irudi gordeko zenukete?

Mariaje: Niri zezena bera, animalia, gustatzen zait, beraz, zezenaren inguruko gauza guztiek atentzioa ematen didate. Sokamuturrean zezena bera ez ezik gainerako guztia ere gogoko dut: nola aldatzen duten, soka-mutilak, jendea korrika... Baina soka bera da ezinbestekoa. Zezenak sokarik ez balu, ez ginatke ibiliko, baina sustoren bat izanez gero, hemen beti norbait dago tira egiteko, eta horrek lasaitasuna ematen du.

Eider: Niri kale batetik bestera aldatzen duteneko irudi hori gustatzen zait; Merkatu plazatik Kalegoenera, adibidez, aurretik eta atzetik ibiltzen delako jendea korrika.

♦ Dira, dira, zezenak dira... harrapatzen bazaitu... dio kantua. Zuek izan duzue sustorik zezenaren aurrean?

M: Sustoa bai, baina norbera ikaritzen delako egoera batzuen aurrean, ez benetan arriskua izan delako. Elizako arkupeetan, adibidez, zezena gelditu eta salto egingo duen ala ez zalantza

sentzitzeak urduritu izan nau. Jendeak esaten du errespetua izan behar zaiola zezenari, baina nik errespetua baino gehiago beldurra diot. Hala ere, beldur horrek sortzen didan adrenalina da hor egotera bultzatzen nauena.

E: Beldurra beti izan diot zezenari, batez ere, zezena badatorrela ikusi, norbera hesi atzera sartzen hasi eta gertuan egon daitekeela sumatzen dudanean.

♦ Zezenaren aurrean –tarteetan distantzia utzita izanda ere– korrika egiteko beharrezkoa al da zerbait?

M: Hanka onak. Gu lehen distantzia luzeagoetan aritzen ginen, Santa Ana kalean aldenik alde, adibidez, baina urteak aurrera joan ahala ez dut hainbeste korrika egiten. Hala ere, ibilbide guztian ibiltzen naiz. Gustatzen zait irten behar direnerako han egotea, gainera norberak bere txokoak izaten ditu. Lehen, adibidez, Maalan txosnen inguruan egoten nintzen, baina orain, parkeko gunea kendu egin dute, zutabeak arriskutsuak izan daitezkeelako. Pena da ibilbidea murriztea [Ierro hauek idazteko unean, aurten



berriro Maalan hastea aztertzen ari zen Udala]. Egun batean plazara mugatuko dute eta niri zezena kalean gora eta behera gustatzen zait.

♦ **Sokamuturra hasterako bertan egoten zarete. Batzuk zuzenean joaten dira parrandatik. Bateragarriak al dira gaupasa egin eta zezen aurrean ibiltzea?**

E: Ez dakit, gaupasarik ez dut sekula egin eta.

M: Nik egin izan dut, baina gutxitan. Parrandan ondo egon arren, nahiago nuen etxera lehenago erretiratzea eta gero zezenerako jaikitzea, nekatuta ibiltzea baino. Niretzat jaietan beti zezenak izan du lehentasuna. Bateragarriak izan daitezke, baina mozkortuta egonez gero, hobe etxera joatea.

♦ **Ingurukoek zer esaten dizute zuen zezen zaletasunagatik?**

E: Lagun batzuk Elgoibarren ikustera ateratzen dira, baina beste herrietara joatea gehiegizkoa iruditzen zaie; ez dira horren zaileak. Nahiago nuke lagunak ere zezen zaleagoak balira. Kontuz ibiltzeko ere esaten didate, bai lagunek eta baita amak ere.

M: Lagunak ohituta daude nire zaletasunarekin. Orain dela urte batzuk Chivara (Valentzia) joan ginen Azpeitiko Zezenbeltz taldearekin, sokako zezenen kongresura, eta autobusera igo ginenean denak harritu ziren hiru neska baino ez geundelako. Gerora ere joan izan gara, eta zezenen inguruan lagun asko egin ditugu.

♦ **Sokamuturrak bai, baina orokorrean zezenak gustatzen zaizkizue. Nolako zezenak?**

M: Behiak baino nahiago zezenak ikusteko, baina normala da hemengo sokamuturretan behiak ateratzea eta aurrean ibiltzeko, noski, horiek nahiago.

E: San Ferminetako entzierroetan ateratzen dituztenak bezalako zezen handiak gustatzen zaizkit niri.

♦ **San Ferminetan bertan izan zarete inoiz zezenak ikusten?**

M: Bai, aurten ere izan gara. Entzierroa bertatik bertara ikusteko goizaldeko hiruretarako han egon behar da, beraz, guk zezen plazarako sarrerak hartu genituen eta bostetan abiatuta korrika nola sartzen diren ikusi genuen. Orain dela urte batzuk asteburuan joan ginen, errekortadoreen lehiaketa ikustera.

♦ **Sokamuturra entzierroaren anaia txikia dela diote. Entzierroan egingo zenukete korrika?**

M: Nik ez nuke ezta zoratuta ere egingo. Zezenak segidan joango direla ziur jakinez gero, agian, baina

“Gustatuko litzaidake entzierroetan korrika egitea, baina ez dakit ausartuko nintzatekeen”

- EIDER CERDEIRA -

zezena gelditu edo norabidea aldatuz gero, ez dago ihes egiteko modurik.

E: Niri gustatuko litzaidake, baina ez dut uste ausartuko nintzatekeenik.

♦ **Beraz, bestelako zezen ikuskizunak ere gustatzen zaizkizue.**

M: Bai, sokamuturra, entzierroak, errekortadoreak... baina zezenketa zaleak ez gara. Ikusita daukat, baina oso gogorra izan zen, eta ez naiz bueltatu.

♦ **Non ikusten dituzue zezenak?**

M: Inguruan Iruñera, Azpeitira, Soraluzera, Mutrikura, Bergara... gertuan izanez gero joaten gara.

E: Udan Valentzian eta Castellonen ikusi izan ditugu. Oporretan joaten gara, eta inguruko herrietara mugitzen gara zezenak ikustera.

M: Herrien %95ean zezenak izaten dira jaietan. *Bous al carre* izenaren baitan zezenaren inguruko ekitaldi asko antolatzen dituzte, gehienak sokarik gabe. Ganadutegien arteko lehiaketetan oziopokak gaintzeko probak egiten dituzte; inoiz toreatu gabeko zezen adar zorrotz-zorrotzunak atera eta sekulakoa da ikustea zenbat jende ateratzen den eta errekortadoreek zein maila ona duten. Horiek ikusten ni egon izan naiz hesietan sartu eta atera. Gavean zezen-suzkoa ere ikus daiteke.

♦ **Baina aurten ere bueltan San Bartolome jaietarako, ezta?**

M: Jaietarako buelta, bai, zezenetarako, urtero bezala. Niri jaietatik zezenak kenduko balizkidate ez dakit bueltatuko nintzatekeen ere. Gainera, zezenak jendea kalera ateratzen du eta horrek jai giroa sortzen du, bestela, agian, iluntzera arte ez ginatke kalera irtengo.



Arg.: Aitor



ARANTXA ETA MARIAN

FRUTA-DENDA

Tel.: 943 744 440

Zure fruta eta barazkia
dei batean etxean!

AMAIA

FRUTA-DENDA

Tel.: 635 704 712

Etxeko banaketa,
fruta eta barazki
freskoak zure etxean!

PEPI ETA MILA

FRUTA-DENDA

Tel.: 943 744 295

Etxeko salmenta zuzena!

MARY

HARATEGIA

Tel.: 943 743 681

Baserriko okela

SARA

FRUTA-DENDA

Tel.: 605 674 428

689 989 487

Zure etxera
banatzen dugu!

Parte hartu gure hileroko zozketetan!

Ondo pasa jaiak



Ana Salegi Egañaren 'Ongi etorri' izeneko irudiak irabazi du sanbartolomeetako programaren azalaren lehiaketa, hamalau lehiakidetatik. *Elgoibarko Jaiak 2017* kartel irabazleak jaien muina ederki transmititu du. Bestalde, haurren lehiaketan 17 kartel aurkeztu dira, eta hauexek dira irabazleak: Aritz Vallejo Caballero (12 urte), Irati Uzkudun Cabezudo (12 urte), Eneko Etxaniz Irureta (10 urte), Elaia Etxaniz Irureta (8 urte), Oihan Goñi Orozko (8 urte), Leire Etxaniz Bereziartua (5 urte).





**Ondo pasa
sanbartolomeetan!**



ABUZTUAK 22, martitzena

18:00 FUTBOL PARTIDA. Elgoibarko Hiria Txapelketa: CD Elgoibar-Amaiak Bat taldeen artean. Mintxetan.

19:30 ARGAZKI ERAKUSKETA. Kirol Argazkien XII. lehiaketako lanak. Kultur Etxeko erakusketa gelan. Irailaren 2ra arte. Egutero, 18:30etik 20:30era, 25ean eta 27an izan ezik.

Jarraian, SARI BANAKETA. Jaietako Kartel Lehiaketako eta Kirol Argazkien lehiaketako sariak. Kultur etxeko erakusketa gelan.

. SAN BARTOLOME BEZPERA .

ABUZTUAK 23, eguaztena

9:00 ETXANIZ MEMORIALA TXIRRINDULARI LASTERKETA. 23 urtez azpiko afizionatu mailakoentzat. Gure Bide elkarteak antolatuta. Lehendakari Txapelketarako puntuagarria. Helmuga: 12:00etan, Pedro Migel Urruzuno kalean. Sari banaketa: 12:30ean, Kalegoen plazan.

10:30 JAIEN HASIERA. San Lazaro Egoitzako eta Egutero Zentroko nagusiei zapi gorria jartzeaz batera.

13:00 TXUPINAZOA ETA KANPAI JOTZEA. C.D. Elgoibar taldearen mendeurrenako batzordeak jaurtiko du.

Jarraian, KALEJIRA. Mautitxa txarangarekin.

16:00 - 19:30 KART-AK. Kalegoen plazan.

16:00 - 20:30 HAURRENTZAKO PARKEA. Aita Agirre plazan. Euria bada, Sigman.

16:30 SORPRESA. Zaharren Biltokian.





17:30-19:00 ERRALDOIAK, BURUHANDIAK, ETA ZEZEN-ZIKLETAK. Elgoibarko, Iruñeko eta Guardiako dultzaineroekin.

19:00 KALEJIRA. Mautitxa txarangarekin.

20:00 SALBEA. Parrokiako abesbatzak kantatua, San Bartolome parrokian. Udalbatza Parrokiara bertaratuko da, Udalaren Txistulari Taldeak lagunduta.

23:00 KONTZERTUA. Vendetta, Kalegoen plazan.



Gabi
jate^{ea} Tel.: 943 741 230

Aurten sanbartolomeetan bi menu aukeran
25€ menua eta 35€ menu berezia

Zatoz, eta aukeratu!

Ondo pasa jaietan!

A. Garate

Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua
angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar

610 226 651

HAIR'S
Ileapaindegia
San Bartolome, 6 behea
943 531 279

ASTEARTEETAN
JUBILATUEN EGUNA

Orraztu
9€
Garbitu, moztu eta orraztu
18€

Ondo pasa jaietan!


URKIDI
AHOLKULARITZA

Oihana Urkidi
oihana@urkidi.net

Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12



Jon Aranao
Guillermo Torres



Elgoibar
Albaitaritzia

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Asteleheneik ostirakera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larribatak: 11:00 - 13:00

Irteerak zerbizua daukagu.
Deitu ordua hartzen.

**ASESORIA
GOAR**

- Kontabilitatea
- Aholkularitza fiskala
- Asesoría laboral

San Bartolome, 2 behea
Tel: 943 742 674 / 943 740 234
Faxa: 943 742 129
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
asesoria@asesoriagoar.com

Txintxo
INMOBILIARIA

San Bartolome, 2 behea
20870 Elgoibar (Gipuzkoa) Tel: 943 742 674

Idama

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

Estetika-medikuntza tratamenduak
Mikropigmentazioa

25 urte zuekin!

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik) - Tel.: 943 744 026

ASKETA S.L.
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

Zure esku jartzen ditugu profesional onenak,
konfiantza eta kalitatea eskainiz.
BERRITZE LANAK- PROIEKTUAK- INSTALAKUNTZAK
DISEINUA- AHOLKULARITZA

Pedro Muguruza, 5
20870 Elgoibar
asketa@asketa.net
www.asketa.net

Biltegia
Igartu industrialdea
Pab. NN 0-8-9
20850 Mendara

ESKATU AURREKONTUA
KONPROMISORIK GABE
943 19 19 52



. SAN BARTOLOME EGUNA .

ABUZTUAK 24, eguna

9:00 DIANA. Iruñeko eta Guardiako dultzaineroekin.

9:45 UDAL TXISTULARI TALDEAREN DIANA.

10:00 UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA.

10:45 HERRIKO ZAINDARIAREN PROZESIOA.

Udalbatzak parte hartuko du,
Udal Musika Bandarekin eta
Udal Txistulari Taldearekin
batera.

11:00 MEZA NAGUSIA.

Udalbatzak, Parrokiako
abesbatzak, Udalaren Txistulari
Taldeak eta Haritz EDTk
hartuko dute parte.

Jarraian, SOKADANTZA

Kalegoen plazan.

**Ondoren, UDAL MUSIKA
BANDAREN KONTZERTUA.**

Txomin Mujika latxak zuzenduta.
Kalegoen plazan.

- *Fiesta en Sevilla* (R. Dorado)
- *Concerto D'Amore* (F. de Haan)
- *La marchenera*, preludioa (F. Moreno-Torroba)
- *Perez Prado* (G. Gazzani)
- *Aitziber eta Jon*, Dultzaina eta Banda (T. Mujika)

16:00-20:30 HAURRENTZAKO PARKEA.

Kalegoen plazan. Euria bada, Sigman.

16:00 - 20:30 QUAD-AK. Aita Agirre plazan.

**17:30-19:00 ERRALDOI, BURUHANDI
ETA ZEZEN-ZIKLETEN KALEJIRA.**

Elgoibarko, Iruñeko eta Guardiako dultzaineroekin.

**18:00 PROFESIOALEN ARTEKO ESKU
PILOTA PARTIDAK.**

Ikastolako frontoian.



19:30 ANTZERKIA. *Do not disturb ikuskizuna,* Vaiven Circoren eskutik. Kalebarren plazan.

23:00 DANTZALDIA. Gozategi taldea, Kalegoen plazan.

. TXIKI EGUNA .

ABUZTUAK 25, barixakua

8:00 DIANA. Mauxitxa txarangarekin eta herriko dultzaineroekin.

Ondoren, SOKAMUTURRA. Arnoren zezenekin.

Jarraian, SALDA eta TXORIZO BANAKETA. Karakate, Ego Toki, Zubi Ondo, Herri Gain, Goiko Errota, Gure Bide elkartean eta Batzokiaren eskutik.

12:00 ZESENTXOAK ETA PONIAK. Aita Agirre plazan.

12:30: MAUXITXA TXARANGAREN KALEJIRA.

18:00 PROFESIONALEN ESKU-PILOTA PARTIDAK. Ikastolako Frontoian.

18:30 ERREKORTE ETA JAUZI LEHIAKETA ZEZENEKIN. 16 urtetik gorakoentzat. Aita Agirre plazan.

19:00 KALEJIRA. Rockbox fanfarrearekin. Kalegoen plazatik hasita.

22:30 DISKO FESTA. Alex eta Urtza Djekin.

EL GRUPO XO
CAFETERIA - PIZZERIA

Txiki egunerako MENUA!

Entsalada
Oilasko erreka patata frijituarekin
Ijito-besoa
(edaria eta kafea barne)

22€

943 574 947

Errosario kalea, 31 - Elgoibar

Hartu gure lekua eta ondo pasa jaietan.
Pizza berria! (Calabresa eta etxeko pizza)
Etxeko gosariak!
Enpanadilla argentinarra



- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar


s o r t u . e u s



EUSKAL ERREPUBLIKA!

DEMOKRAZIA - BERDINTASUNA
HERRI BOTEREA

BM Termoplastiko eta Konposatuen
Mekanizazio larrik
Metal Ez-Ferrikoeak
bronymecsa



@BronymecSA

JAI-ALAI TABERNAKalegoen Plaza, 5 - 20870 Elgoibar
Tel.: 943 740 021**Ondo pasa jaixetan!****Osasun gida**

Osasun gida

Osasun gida

Osasun gida

RPS 271/12

ainhoa
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 beheia
Elgoibar
943 531 953
669 565 745



aldaz
hortz klinikak

RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

fisio&más
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea



Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 933 698
www.fisio-mas.com

RPS 112/18

federópticos

ikus

RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

leku eder
hortz klinika

RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Enparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

Mari Jose Ruiz Porres
Doktorea
GINEKOLOGOA

R.P.S. 82/15
Madina Radiologia
Toribio Etxeberria 4, 1 - Eibar
Tel.: 943 202 857
mj.ruizporres@gmail.com



RPS 183/12

Uzuri
optika audio

Elgoibar
Tel.: 943 740 359

Deba
Tel.: 943 192 192

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA



Teribio Etxeberria, 22
Eibar
Tel. 943 108 020
Mug. 677 551 850

Baserritarren Eguna .**ABUZTUAK 26, zapatua**

9:30 ABELTZAINI HARRERA. Haritz Euskal Dantzari taldeak eta Udal Txistulari Taldeak harrera egingo diete ganadu lehiaketan parte hartuko duten abeltzainei. Kalebarren plazan.

Jarraian, KALEJIRA. Baltzola anaiak trikitilariekin.

10:00 GIPUZKOAKO LIMOUSIN GANADU TXAPELKETA. Aita Agirre plazan.

11:00 SAGARDO TXAPELKETA ETA DASTATZEA. Sallobente Elkartek antolatuta. Kalegoen plazan.

11:00 GAZTA TXAPELKETA ETA SALMENTA. Kalamua elkarteak antolatuta. Kalebarren plazan.

11:30 KALE KANTARIAK. Elgoibarko kale kantariak euskal abesti herrikoiekin. Maalatik.



13:00 SAGARDO TXAPELKETAKO SARI BANAKETA. Kalegoen plazan.

13:30 BERTSOLARIAK. Kalebarren plazan.

Ondoren, GAZTA TXAPELKETAKO SARI BANAKETA. Kalebarren plazan.

Jarraian, GANADU TXAPELKETAKO SARI BANAKETA. Kalegoen plazan.



17:00 KALEJIRA. Baltzola anaiak trikitilariekin.

18:00 HARRI-JASOTZE TXAPELKETA. Kalamua elkarteak antolatuta, Mintxeta memoriala. Mintxeta eta Belaustegi harri irregularrak (5 minutu bakoitzarekin). Kalegoen plazan (euria bada, Ikastolan).

18:30 KALE IKUSKIZUNA. Walkman Ganso & Ciaren eskutik. Kalebarren plazan (euria bada, Maalan).

19:30 HAURRENTZAKO ZUMBA. Kalegoen plazan.

22:00 KINTOPEKO IDI PROBAK. Sigma Probaleku Herri Kirol Elkartearen eskutik. Sigmako probalekuan.

23:00 DISKO FESTA. Oihan Vega Djarekin, Kalegoen plazan.

24:00-03:00 MAALAKO GUNE

PREBENTIBOA. Sasoiaren alkoholemia frogak eta Ai Laket!-en eskutik drogak testatzeko programa: substantzien informazioa eta testa. Maalan.

ZA
ZURE ALDE

Iñaki Gil Azpilicueta

ABOKATUA

Zibil-Jabetza horizontala
Komunitateen kudeaketa

Jausoro plaza, 3 -behea 943 531 351 gilazpilicueta@zurealde.net Elgoibar

ETXEBERRIA
EHORZKETA-BEILATOKIA



943 741 327 (24 orduz)
635 756 295
629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta
konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

FONTANERÍA
Ibámar
ITURGINTZA

San Roke 10-A, beheka B
Floren Cid: 647 463 436
E-posta: ibamar@euskalnet.net

Ondo pasa sanbartolomietan!

- BEROGAILUA
- GASA
- GASOLA
- AIRE EGOKITUA
- ALTZARIAK
- MANPARAK
- OSAGAIAK
- GREMIOEN KORDINAZIOA
- ERREFORMAK



. Umeen Eguna .

ABUZTUAK 27, domeka

11:45 HAURENTZAKO ENTZIERROA.

King-Kongetik Aita Agirre plazara.

Jarraian, ZEZENTXOAK eta PONIAK.

Txikienentzat, Aita Agirre plazan.

12:30 MARRAZKI LEHIAKETA.

Zuhaitz aisialdi taldeak antolatuta. Izen-ematea: 11:30etik 12:15era, Elizako arkupeetan.

14:00 HAURENTZAKO BAZKARI HERRIKOIA.

Elizako arkupeetan.



15:30 HAURENTZAKO PARKEA.

Kalegoen plazan. Euria bada, Sigman. Aita Agirre plazan. Slide-a 15:30etik 18:30era umeentzat eta 18:30etik 19:30era nagusientzat.

18:00 MARRAZKI LEHIAKETAKO SARI BANAKETA.

Kalegoen plazan.

Ondoren, ERRALDOI, BURUHANDI ETA ZEZEN-ZIKLETEN KALEJIRA.

Mauitxa txarangarekin. Haurrak mozorrotuta joateko gonbitea egin du Udalak.

19:30 'GOIAZEN DANTZATU ETA ABESTERA'. Maalako parkean.




TXANKAKUA
ELGOIBARKO MERKATARIAK

Elgoibarren
bizi, erosi
herriak irabazi

TXANKAKUA
ELGOIBARKO MERKATARIAK



- ◆ ALIRE ESTETIKA ◆ ARANBURU BITXIDENDA ◆
- ◆ ARAURI LURRINDEGIA ◆
- ◆ BURGOA SOMOZA ARRAINDEGIA ◆
- ◆ CASA ASTIGARRAGA ◆
- ◆ DOÑA MERCEDES ◆ ECENARRO MERZERIA ◆
- ◆ ENE BADA ◆ EVOKA SHOES ◆ FARMA APRAIZ ◆
- ◆ FEDEROPTICOS IKUS ◆ FERPI MODAK ◆
- ◆ G & M JANTZIDENDA ◆ GARATE JANTZI-DENDA ◆
- ◆ GARBIÑE ESTETIKA ◆ GOIARA DROGERIA ◆
- ◆ IPINTZA MARGOAK ◆ IRIONDO ALTZARIAK ◆
- ◆ IRIONDO KIROLAK ◆ IRUDI ARGAZKIAK ◆
- ◆ KALA LORADENDA ◆ KARKIZANO ◆ KLITZ ◆
- ◆ LAGUNAK KOLTXOIDENDA ◆ LANBROA ◆
- ◆ LETE ◆ LUVIK OINETAKOAK ◆ MG BURDINDEGIA ◆
- ◆ MOMA JANTZIDENDA ◆ MURUAMENDIARAZ ◆
- ◆ NU-VAN ◆ ONGI ITURGINTZA ◆
- ◆ ORTOPEDIA ITZIAR SARASKETA ◆ PAUSOAK ◆
- ◆ PITXINTXU ◆ SARA JANTZIDENDA ◆
- ◆ UZURI OPTIKA ◆ ZAZPI INFORMATIKA ◆
- ◆ ZELETA BARAZKIAK ◆



25 urte zuekin!

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

Jubilatuen Eguna

ABUZTUAK 27, domeka

8:00 DIANA. Herriko dultzaineroekin.

Jarraian, SOKAMUTURRA. Arnoren zezenekin King-Kong-etik.

12:00 HEGALUZE-PARRILLADA.

Antolatzailea: Sanlo E.T. Kalebarren plazan.



12:00 FUTBOL PARTIDA.

Emakumezkoen Euskal Herriko kopa.

Reala – Athletic (Lehen mailako taldeak),
Antolatzaileak: EH Kirola, Elgoibarko Udal Kirol Patronatua eta C.D. Elgoibar.
Mintxetan.

12:30 JUBILATUENTZAKO MEZA.

San Bartolome parrokian.

14:30 JUBILATUEN BAZKARIA.

Olaizaga kiroldegian, Eguren Orkestrak girotuta.

19:00 DANTZA SOLTEKO LEHIAKETA.

Haritz EDTk Udal Txistulari Taldearen laguntzarekin antolatuta, 16 urtetik beherakoentzako. Kalegoen plazan.

22:30 KALEJIRA. Deabru beltzak: *Su danborrak*. Kalegoen plazatik abiatuta.



SAHATZU HARATEGIA

Santa Ana, 5
T943 742 048

JON ULAZIA
"SAHATZU"




PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62

ONDO PASA JAIETAN...

nava@euskalnet.net

NAVA

INPRIMATEGIA



ARAMBURU
BITXIDENDA

Ondo pasa jaietan!

San Frantzisko, 26 - Tel./faxa: 943 742 535 - Elgoibar

TANTAKA

Alta agirre, 5
Tel: 943 030 736

TABERNA



- 🍷 Pintxoak
- 🍷 Entsaladak
- 🍷 Ogitartekoak
- 🍷 Plater konbinatuak
- 🍷 Razioak

Gozatu jaixetan!

. Gazteen Eguna .

ABUZTUAK 28, astelehena

8:00 DIANA. Herriko dultzaineroekin.

Jarraian, SOKAMUTURRA. Amoren zezenekin.

Jarraian, SALDA eta TXORIZO BANAKETA.

Karakate, Ego-toki, Zubi-ondo, Herri-Gain, Goiko Errota, Gure Bide elkarten eta Batzokiaren eskutik.

12:00 GOITIBEHERA JAITSIERA. Zuhaitz aisialdi taldeak antolatuta. Azkuen (San Roke).





Jarraian, KALEJIRA. Mautitxa txarangarekin.

18:00-19:00 DIRT JUMP-A ETA TRIALSIN-A.
Funbox Factory-ren eskutik. Aita Agirre plazan.

20:30 KALEJIRA. Brincadeira percusion taldearen eskutik. Kalegoen plazatik abiatuta.

22:00 KINTOPEKO IDI PROBAK. Sigma Probaleku Herri Kirol Elkartearen eskutik. Sigmako probalekuan.

23:00 KONTZERTUA. Itziarren semeak taldearekin. Maalako parkean.

ABUZTUAK 29, martitzena

23:00 ESKUBALOI PARTIDA. Alcorta-Anaitasuna. Sanlo Eskubaloi Taldearen eskutik. Olaizaga kiroldegian.



Autoeskola
LARRAÑAGA

Etorri eta teorikoa atera ezazu 17 urte bete baino lehen!

JAI ZORIONTSUAK!

Santa Ana Kalea, 11 behea
20870 ELGOIBAR
943 741 011
elgoibar@autoescuelalarranaga.com

Mahasterreka Kalea, 10 behea
20570 BERGARA
943 761 663

Jasone
zerbitzu digitalak

San Ignazio, 1 • ELGOIBAR
Tel.: 943 53 17 45
jasone@jasonesg.com
www.jasonesg.com

- INPRIMAKETA DIGITALA
- Lan komertzialak, Irudi korporatiboa
- Katalogoak, Liburuzkak
- Kartelak, Egutegiak
- Ezkontza gonbidapenak
- Zorion-agurrak, etab.
- TAMAINA HAUNDIKO KARTELGINTZA

Jurdes
Bere aginderekin

Jai zoriontsuak herritar guztiei!

Pedro Miguel Urruzuna kalea, 10
943 256 105

karkizano

Ondo pasa sanbartolomeetan!

San Frantzisko, 14
Tel.: 943 740 549
Elgoibar

GOKI ERREFORMAK S.L.

OBRAK ETA PROIEKTUAK



Olaso pol., 15 - 68 Pab. 20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 744 223 - 943 744 587
goki@gokierreformak.com

Irizar Ibilbidea, 1 behea 20570 BERGARA
Tel.: 943 765 342 - Faxe: 943 765 216
bergara@gokierreformak.es

Fatxadak (Isolamendu termikoa) - Teilatuak - Bainugelak
Sukaldeak - Igogailuak - Gremioen koordinakuntza



I.T.E.
Eraikinen ikuskaritza teknikoak



Energia-eraginkortasunaren
ziurtagiria

www.gokierreformak.net

Ondo pasa San Bartolome jaietan!

Uzuri optika audio

San Francisco, 21
20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 740 359

Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel.: 943 192 192



Lantaldearen partez
ondo pasa jaietan!

 **MILAR
BIRE**

Ondo pasa jaietan!

- Garbigailuak • Roonba • Tabletak • Telefono libreak • Aspiragailuak •
- Ile-lehorgailuak • Telebistak • Hozkailuak • Berogailuak • Labeak • Indukzioa •


Ubitarte, 11 - Elgoibar - 943 741 487 - bire@milar.es

Kultur eskaintza oparoa

'DO NOT DISTURB' ANTZERKI IKUSKIZUNA

Abuztuak 24, San Bartolome Eguna. Kalebarren plazan, 19:30ean.

Granadako Vaiven Circo konpainiak *Do Not Disturb* dantza pieza originala erakutsiko du bere ikuskizunean. XX. mendeko lantegi batera hurbilduz lau pertsonaia gupil erraldoi bat muntatzeko borrokan arituko dira. Lana, jolasa eta sormena uztartuko dituzte gorputzeko mugimenduak muturrera eramanez. Horretarako Chaplin eta Keatonen antzerki mutuairen baitan dantza, antzerkia eta pailazoak uztartuko dituzte, besteak beste sinestezinako akrobazien eta dantza koreografikoen bitartez.



'GOZATEGI 25 URTE' KONTZERTUA

Abuztuak 24, San Bartolome Eguna. Kalegoen plazan, 23:00ean.

1992an sortu zuten Gozategi musika taldea Asier eta Ainhoa Gozategi anai-arrebek eta Iñigo Goikoetxeak. Orduz geroztik euskal kantugintzako klasiko diren abesti asko sortu dituzte, besteak beste *Nirekin*, *Nor Nori Nork*, *Narama*, *Egunon*, *Porru Patata*, *Emoixtaxux muxutxuek*... 25. urteurreneko ospakizunekin bat eginez, urte hauetan denetan ezagun egin dituzten abestiak zuzenean entzuteko aukera emango dute.

'ROCKBOX' KALE IKUSKIZUNA

Abuztuak 25, Txiki Eguna. Kalegoen plazatik hasita, 19:00ean.

Tolosako (Okzitania) Rockbox boskoteak maila goreneko rock doinuak aitaratuko ditu rockeko munduko izar handien bertsioak txaranga moduan jotz. Garai bateko estetika ingelesean murgildu eta rock klasikoa eskainiko dutenez, baliteke adin batetik gorako herritarrak erakartzea. ACDC, Rolling Stones, Led Zepellin, Queen, David Bowie, Jimi Hendrix, The Who... moduko taldeen doinuekin entzuleak harritzea da beraien asmoa.



'WALKMAN' KALE ANTZERKIA

Abuztuak 26, Baserritarren Eguna. Kalebarren plazan, 18:30ean.

Gizona, showmana, seduktorea eta mutil baikorra. "Tontolapikoa" izan arren egiten duen guztiak merezi duela sinestarazteko prest dago. Beraz, Gorka Manso aktoreak interpretatuko duen Walkman pertsonaia ezertarako balio ez duten trebetasunen erakustaldia eskainiko du komedia bisual, unibertsal eta parte hartzaile baten bidez. Izan ere, ikusleak berari laguntzera animatuko ditu ia ordubeteko iraupena izango duen saioan.

'DISKOFESTA' OIHAN VEGAREKIN**Abuztuak 26, Baserritarren Eguna. Kalegoen plazan, 23:00ean.**

Irati esatari, telebista aurkezle, aktore eta musikari lanetan jardun du eta dihardu Bergarako mutilak eta Euskal Herriko DJ erreferentea da. ETBk eta GAZTEA irratiak sustatuta, herri ugari igaro ditu *Diskofestarekin* eta plaza guztiak jai giroz goraino betetzea bermatzen du. Askotariko musika entzuteko aukeraz gain, dantzatzeko doinuak ere ipiniko ditu bertaratutakoak animatu eta gorputzak mugitzeko.

**'SU DANBORRAK' IKUSKIZUNA****Abuztuak 27, Jubilatuen Eguna. Kalegoen plazan, 22:30ean.**

Danborrak, dantza eta sua. Horiek dira Deabru Beltzak konpainiak Su danborrak ikuskizunean erakutsiko dituenak. Bere estilo harrigarrian ikusleei gonbidapena luzatuko die kalea erritmo, argi, bizi, magia eta magnetismoz betetako jai bilakatzeko. Etorkizuneko pertsonaia bitxiak kalea hartu eta eraldatuko dute. Kalea zena erritual modernoek eguneroko bizitzaren keinuak integratzen dituzten leku bilakatuko dute, munduko hainbat lekutako erritmo eta su primitiboak uztartzuz.

**'GO!AZEN DANTZATU ETA ABESTERA' IKUSKIZUNA****Abuztuak 27, Umeen Eguna, Maalan, 19:30ean.**

Go!azen telesaileko aktoreak heriz herri dabilta uda honetan *Go!azen dantzatu eta abestera* ikuskizunarekin. Izenak dion bezala, gazteak dantzatera eta abestera gonbidatuko dituzte. Telesaileko aktoreetako batzuen laguntzaz, koreografiak ikasiko dituzte neska-mutilek, eta ondoren, karaokean, joan zen denboraldiko abestiak kantatzeko aukera izango da, aktoreen laguntzarekin beti ere.

'BRINCADEIRA PERCUSION' KALEKO MUSIKA**Abuztuak 28, Gazteen Eguna. Kalegoen plazan abiatuta, 20:30ean.**

Bartzelonako Ciutadella parkeko perkusio topaketetan sortutako taldeak perkusioaren isiltasunetik irribarrea ateratzea izango du helburu. Fusioa da musika arloan oinarria, eta gorputz mugimenduaren erritmoaren laguntzaz, ikus-entzuleengana gerturatzea dute helburu. Beraz, perkusioa ardatz hartuta, ikuskizuna kaleetara moldatuz jendearengana iristea izango dute helburu.

**'ITZIARREN SEMEAK' KONTZERTUA****Abuztuak 28, Gazteen Eguna. Maalan, 23:00ean.**

Ska, punk, reggae eta folk doinuak eta dantzak nahastuko ditu kantuetan Itziarren semeak talde mungiarrek. 80ko hamarkadako iturritik edanda, euren bidea egin dute sinesten dituzten ideiak jai giroan aldarrikatuz. Aurten kaleratu dute *EH Republik* lan berria, beraz, kantu ezagunak ez ezik doinu berriak ere entzun ahal izango dira Maalan jaietako azken gaua alaituz.



“Gure habitata eszenatoki gainean dago eta hor ematen dugu dena”

● ENRIKKO RUBIÑOS MUSIKARIA

Vendetta ska taldeko bateria jolea da Enrikko Rubiños eta kontzertuetan kantu motz pare batean ere abesten du. Biran dihardu taldeak eta abuztuaren 23an Elgoibarren egingo du geldialdia. Ska doinuak elektronikoeekin nahastuz plaza bete eta martxan jarri nahi dituzte entzuleak. Dantzarako gonbidapena egin dute Vendettakoek.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

◆ Ska da nagusiki zuen taldearen estiloa. Nahikoa toki al du skak Euskal Herriko eszenatokietan?

Azken aldian ska talde dezente ikusten ari gara Euskal Herriko festetan, kontzertuetan eta festibaletan eta hori seinale ona da. Festarako giroa jartzen duen musika izan ohi da ska, beraz, festetarako aproposa. Nahikoa leku du skak eta beste estilo batzuei ere atea ireki beharko litzaieke. Ez da ska bakarrik programatu behar. Euskal Herrian ohitura handia izan da urtetan rockaren eta heavyaren inguruan, eta hori galtzea penagarria litzateke.

◆ Zuek ere, skaz gain, bestelako doinuak eskaintzen dituzue.

Zer entzungo dute Elgoibarko kontzertura gerturatzen direnek?

Guk bost disko dauzkagu. Lehenengoa izan zen Euskal Herrian entzuten zen skaren estilokoa, baina ondorengoetan garatuz joan gara, beste estilo batzuekin nahastuz. Azken honetan nahasketa musika elektronikoarekin izan da. Beraz, Elgoibarko kontzertuan entzungo dituzte aurreko diskoetako kantuak, baina batik bat azken *Bother* diskokoak, kutsu elektronikoa dutenak.

Ska musika elektronikoarekin nahastea soinuaren aktualizazioa da. Gaur egun gure inguruan entzuten dugun musika guztiak ukitu elektronikoa baitauka.

“Ska musika elektronikoarekin
nahastea soinuaren
aktualizazioa da

◆ **laz kaleratu zenuten Bother diskoa. Nolako harrera izan du?**

Oso harrera ona izan dugu. Kontzertuero plaza gainezka izaten da, bai Euskal Herrian, Espainian eta baita atzerrian ere. Durangoko azokan ere disko salduenetakoa izan zen, eta kontuan hartuta webgunean diskoa doan deskargatzeko aukera ematen dugula, oso seinale ona da.

◆ **Kantuen hitzak eguneroko gaiet buruzkoak izateak ere erakarriko du jendea, ezta?**

Beti inguruan ditugun arazo sozialei edo aldarrikape-nei kantatzen diegu. Esaterako, azken diskoko *Pao Pao Pao* abestia eraso matxisten aurkakoa da. Hori da orain mugitzen ari garen singlea eta beharbada horregatik da gehien entzuten den kantua. Aurretik *Bother the police* ere oso entzuna izan zen. Momentu bakoitzean indarrean den singleak hartzen du arrakasta. Hala ere, ausartuko nintzateke esatera *Pao Pao Pao* kantua diskoko arrakastatsuen izan dela.

◆ **Zer espero duzue Elgoibarko kontzertutik?**

Pentsatzen dut plaza goraino beteta egongo dela. Eta espero dut jendeak guk eszenatoki gainean gozatzen dugun bezainbeste gozatzea gurekin. Horretan saiatzen gara kontzertuero. Gu hontarako jaio gara, gure habitata eszenatoki gainean dago, eta hor ematen dugu dena. Beraz, gonbidatu nahi nituzke elgoibartar guztiak, baita inguruko herrietakoak ere plazara gerturatzeko, dudarik gabe ondo pasatuko dutelako guk ahalegin guztia egingo baitugu gau ona pasarazteko.



943 740 582

Faxa: 943 741 707

San Frantzisko, 40, behea • patxiza@mapfre.com



SURYA
BELAR-DENDA

943 742 534 630 878 054

surya-belardenda@hotmail.com
San Frantzisko, 23 - Elgoibar



ELENA

Ondo pasa jaietan!

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 -1

Tel: 943 741 189

ARMUETA
HARATEGIA

ANGEL ARRIZABALAGA

San Bartolome, 16 - 20870 Elgoibar
Tel.: 943 740 640 - 630 225 428



Jatekoa prestatzen dugu enkarguz, lagunarteko otorduetarako, zein etxerako. Piper beteak, albondigak, okela gisatua, etab...
Etxean hazitako txahal-okela.

Kirol argazki onenak

Kirol Argazki Lehiaketa antolatu dute aurten ere Elgoibarko Udaleko Gazteria Sailak, Kirol Patronatuak eta Ongarri argazkilari taldeak. Atzo, hilak 22, banatu behar zituzten sariak, gero Kultur Etxeko erakusketa gelan erakusgai jartzeko. Irailaren 2ra arte ikusi ahal izango dira argazkiak. Aretoa egunero zabalduko dute, 18:30etik 20:30era, hilaren 25ean eta 27an izan ezik. Hona, irabazleak.

Javier Pedro Fernandez Ferreras



Fernando Zamarbide Ferraras



SARIDUNAK

SARI OROKORRA

1. saria: Javier Pedro Fernandez Ferreras (Castro Urdiales). Sumo-2.
2. saria: Fernando Zamarbide Ferraras (Donostia): *Final Feliz*

NERABEENTZAKO SARIA

1. saria: Nerea Beristain (Elgoibar): *QuickPro is on!*

GAZTEEN SARIA

1. saria: Jokin Zubiaurre Mochales (Elgoibar): *Azken bostekoa.*
2. saria: Sara Beristain (Elgoibar): *Borgethon inun baiño hobeto*

HERRIKO SARIA

Ander Izagirre Egaña:
Hemen da gailurra



Nerea Beristain



Jokin Zubiaurre Mochales



Sara Beristain



Ander Izagirre Egaña



San Bartolome, 30
Tel.: 680 724 060
Plaza txikitik ere badu sarrera!
ibarrenea@hotmail.es

ARTISAU-OGIA
EGUR-LABEAN
EGINDAKOA

KONTSERBAK
ETA ARDOA

ONDO PASA JAJETAN!



ESARRI AUTOAK ZERBITZUA
MARKA GUZTIAK

943 741 480

Aitor: 606 975 730

Anton: 680 356 573

Faxa: 943 031 576 Olaso, 17 - Elgoibar

ZERBITZUA



LAGUNAK
colchonaria textil hogar

943 744 457

SAN ROKE KALEA, 20 - ELGOIBAR
www.textillagunak.com

GYS SPORT **CASA** ELGOIBAR
ASTIGARRAGA



943 743 268

Errosario kalean aurkituko gaituzue,
ondo pasa jaietan!



SANSON AROZTEGIA

JOSEBA IRIONDO

619 793 653

sanson.azoztegia@gmail.com



UNCETA

Unceta Taldeak

jai zoriontsuak opa dizkizue



UNCETA
Herramientas de Calidad

Erreminta industrialen
hornitzaile liderrak

943 74 40 00
www.unceta.es



SARIKI
METROLOGIA

Metrologia adimendua
fabrikazio prozesuetan

943 74 38 08
www.sariki.es



LABMETRO
Laboratorio de Metrología

Kalibrazio laborategia

943 74 38 30
www.labmetro.es



EZKONTZAK
BATAIOAK
JAUNARTZEAK
AGURRAK
KINTADAK **KARAOKE** arekin

Sigma
jatetxea

Tel.: 943 748 531
675 708 160
sigma.jatetxea@gmail.com

Milar esker guztioi
zuen konfidantzagatik

"Berezitasuna EGUR-IKATZETAN"

ORDUTEGIA

7:30etik 22:00etara

Astelehen arratsaldean itxia
Igandotan erretserba eginez gero zabalik.

autocares
Revert



943 741 853

autocaresrevert@gmail.com



**Ondo
pasa
jaietan!**

Mausitxa basenia,
San Antolin auzoa
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
626 957 900

OSOKa

altzariak eta dekorazioa

San Frantzisko 54, behea

943 74 89 18

www.osoka.es



Fotodepilazioa
egiten dugu

**ONDO PASA
JAJETAN!**

Santa Ana, 18
20870 Elgoibar
Tel.: 943 741 864

ETXEBIZITZA ETA
GARAJEEN HURRENGO
ERAIKUNTZA **UBITARTEN**

943 31 65 86

INFORMAZIO
GEHIAGO

www.sukia.com

San Roke kalea 15 - 20870 Elgoibar
Koordenadak: 43.212760, -2.416292

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa

grupo
LAZKANO

Finantziabanku
k labank



“Konpromisoa eta parranda, bietatik dute niretzat jaiek”

► **CARLOS GOMEZ ALVAREZ** MAZOLARIA ETA BURUHANDIA

20 urte ditu Carlos Gomezek eta ezaguna egingo zaizue askori. Ikusiko zenuten salbean mazolari jantzita, Udal Korporazioaren aurretik, eta ikusi ez arren, ibiliko zineten noizbait hari ihesi ere, buruhandien eta erraldioen kalejiran. Puxika eskuan hartu eta pirata jantzita ibili ohi da, haurren eta gurasoen atzetik saltaka. Oraintsu arte, Haritz Euskal Dantzari Taldean ere ibili da, eta tokatuko zitzaizuen noizbait dantzan ikustea, azkenekoz, zapatuan, Mintxetan. Aurpegi asko ditu jaietan Carlos Gomezek, eta haien inguruan hitz egin digu.

AINARA ARGOITIA

◆ Mazolari zara. Askok zer den ere ez dute jakingo, baina guri beti deitu izan digu arreta. Nolatan sartu zinen?

Lagun batek esanda hasi nintzen. Egia esan, mazolariak zeudenik ere ez nekien nik aurrez, eta ezta salbea izaten zenik ere. Jaietako egitarauko parte hori mazolari hasi nintzenean ezagutu nuen. Izena eman nuenean jakin nuen, era berean, zein izaten zen bere garaian mazolariaren egitekoa ere: alkatea eta udal korporazioa babestea. Horregatik eramango dugu mazo astun hori ere, diot nik. Urtean hiru-lau egunetan irteten gara. Ekitaldi instituzionalak dira denak, elizkoiak edo protokolo handikoak. Jendea ez da konturatuko, baina protokoloa zorrotz betetzen dugu. Alkateak berak ematen dizkigu azalpenak, eta hil den arte Jose Inazio Sarasua

txistulariak ere bai. Salbean irten aurretik, korro batean biltzen gintuen eta erdian jarrita ematen zizkigun azalpenak. Trajea nola jantzi, ibilkera eta egoteko modua nola zuzendu, tente ibiltzeko gogorarazi... Trajea ondo jantzea bera ere ez da horren sinplea. Lumak direla, mailua dela... hamaika txikikeri dira zaindu beharrekoak. Jose Inaziok oso serio hartzen zuen hori dena, eta kasu egiten genion guk. Esango nuke protokoloa gehien zaintzen zuena bera zela. Igarriko da aurten bere falta, bai, eta ez salbean bakarrik. Haritz dantza taldearen bueltan ere hutsune handia laga du.

◆ Hain joaten zarete serio, beharbada ez duzuela alboetara begiratzeko aukerarik izango, baina gauza bat esango dizut:

Zuen adineko gutxi ikusiko dituzu ekitaldi horietan.

Gutxi ez. Inor ez. Aiton-amonekin dauden umeak eta adinekoak ikusten ditut nik. Kuadrillakoak gara mazolari lanetan ibiltzen garen biok, baina ez dago arriskurik ez, kuadrillako besteek gu ikusteko. Adar joka ibiltzen zaizkigu, argazkitan moztortuta ikusten gaituztenean, baina berezia da, eta gustatzen zait. Ikustekoa da zenbat jende batzen den salbean-eta! Tradizio handia dauka eta horko parte izatea ere polita da. Jende asko izaten dugu begira, argazkilari asko ere bai, eta berezi sentitzen zara.

♦ Oso bestelako lanak ere betetzen dituzu jaietan. Buruhandi ere bazara.

Bai, eta asko gustatzen zait, gainera. Beste *rollo* bat da. Haritz dantzari taldekoak gara denok, lagunak, eta oso ondo pasatzen dugu. Umeek ezagutzen naute kalean, eta oso polita da. 'Pirata, pirata' deitzen didate batzuek, eta ahopean lagunari zein naizen esaten entzuten diet beste batzuei. Oso umezalea naiz, eta buruhandion eta umeen artean sortzen den harreman hori oso polita da. C.D. Elgoibarren ere aritu naiz futbol eskolan entrenatzaile lanetan, eta adin bateko umeak denak ezagutzen ditut. Badakit zeini eman diezaiokedan eta zein beldurtzen den, eta baita noiz ibili behar naizen tentuz, buruhandiak atzetik dituztenean umeak eroaren parte hasten direlako korrika eta arrisku umeak ere sor ditezkeelako. Hori bai, iruditzen zait ume askok errespetua ere galdu dutela. Trinitateetan 12 bat urteko mutil bat makilarekin ibili zitzaigun atzetik jotzen, min egiten.

♦ Bistan da jaiak bizi dituzula.

Bai. Sanbartolomeak bereziak dira niretzat. Gurasoek oporraldia luzatu arren, ni jaietarako hemen egoten naiz. Konpromisoa eta parranda, bietatik dute niretzat jaiak. Ardura batzuk baditut, eta saiatzen naiz ahalik ondoen betetzen, baina berdin-berdin irteten naiz parrandan.

♦ Zure adinekoek deskantzurako hartzen dituzten orduetan zuk konpromisoak dituzu, baina. Noiz hartzen duzu atsedena?

Jaiak amaitu ostean. Egia esan, errendituta bukatzen dut sanbartolomeetan, baina jaiak topera bizi ditut. Loari ordu asko kentzen dizkiot, baina tira, hori ere orain egin behar da. Baina, bueno, bai, lagunak abantailarekin jokatzeko dute jaietan, baina egitarauko parte bat ezagutu ere ez dute egiten.

♦ Uste nuen Mauxitxa zela sanbartolomeetako egitarauan ezinbestekoa zena, baina zu zeu ere... mazolari, buruhandi eta Haritz dantza taldeko dantzari. Paper handia duzu.

Jajaja. Mauxitxa txarangarik gabe ez dago jairik Elgoibarren, baina nire lekua beteko luke beste

norbaitek. Hori bai, buruhandiak eta Haritz dantza taldea pieza klabeak dira jaietan. Soka-dantzarik gabeko San Bartolome eguna imajinatzen al du norbaitek? Izugarrizko arrakasta izaten du. Nik berez laga dut Haritz dantza taldea, baina esana diet behar nautenean deitzeko lasai. Iaz, neskek egin zuten dantzan soka-dantzan estrainekoz eta berrikuntzak ari dira egiten, aurre-raupausoak. Batzuetan aukeratu beharra izan dut nik ere, ekitaldi jakin batzutarako bietatik deitu izan didatelako. Errosario kaleko ezpata-dantzarako, adibidez.

♦ Kontatzeko moduko anekdotarik ba al duzu?

Duela bi urteko jaietan, mailua apurto zitzaion beste mazolariari elizan, altarean geundela, eta beste behin, eskularrurik gabe irteten ginen. Estu ibili ginen orduan, esku bat atzean ezkutatuta. Inor ez zen konturatuko, baina guk geuk ez genuen ondo pasatu, badakigulako protokoloak zenbaterainoko garrantzia daukan.

♦ Une gogoangarriak ere izango zen, baina, ala?

Bai, egun bereziak izaten dira, onak eta ez hain onak ere bai. Momenturik deseroena buruhandiek bizi izan nuen, duela pare bat urte polemika hura sortu zenean. Baina, momentu onak gehiago izan dira. Zapatuan, esaterako, Mintxetan izan nintzen C.D. Elgoibarren mendeurrenako ekitaldian dantza egiten, eta oso hunkigarria izan zen. Urduri egon nintzen, baina ikusgarria izan zen harmailak bete-beteta ikusi eta C.D. Elgoibarko jende ezagunaren eta Realeko jokalarien aurrean dantza egitea. 14 urterekin hasi nintzen entrenatzaile lanetan ni futbol eskolan eta 8-10 urtekoekin ibili nintzen lanean. Ia aurten bueltatzen naizen klubera. Alkateak berak ere esan zidan leku guztietan ikusten ninduela. Jajaja. Ahal dudan guztian nago. Ez dizut esan, baina agintariekin ere harreman berezia sortzen da. Horrenbeste ekitaldian ikusten dugu elkar...

Ezkerreko argazkian, Carlos Gomez, mazolari jantzita (ezkerrekoa da bera). Eskuinean, buruhandi paperean.





J. BERBEL  ESTUDIOA

Ezkontzak
Haurdunaldiak
Jaunartzeak
ume eta haur erreportaiak
Enpresa bideo eta erreportaiak
Ekitaldi Instituzionalak
Kirol ekitaldiak

688 728 299
jberbelestudioa@gmail.com
San Bartolome n°18



317
api  **GABILONDO**
INMOBILIARIA AGENTZIA

Zuzenbidean lizentziatua

API { Edurne Gabilondo Loyola
Jose M^a Azpeleta Iturricastillo

San Frantzisko, 51 behea - Elgoibar
943 744 467 - 685 752995
www.inmobiliariagabilondo.es
inmobiliariaazpeleta@live.com

**HIGIEZINEN SEKTOREKO PERITU JUDIZIALA
ASAP AGENTE KOLABORATZAILE HOMOLOGATUA**

Eskaintza berezia etxebizitzan, garajeen, lokal komertzialen,
industria pabiloien eta baserrien salmentan nahiz alokairuan



Hainbeste itxarondako
festak iritsi dira.
Ondo pasa!

Ostalaritzan eta Vending-ean adituak.
1983 geroztik.

Banataile ofiziala: www.urbotronik.com | 943 203 112

AZKOYEN.



INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES



FABRIKAZIOAREN
ZENTRO AURRERATUA
CENTRO AVANZADO
DE FABRICACIÓN

Ondo pasa jaietan!

INGELESIA - FRANTSESA - ALEMANA - ITALIERA - TXINERA

IRAILTIK HASITA 2017-2018 KURTSOKO IKASTAROAK

- Maila guztiak
- Titulu ofizialak,
- Esperientzia duten jatorrizko irakasleak.
- Ikastaroak atzerrian.
- Multimedia gela.
- Haurrak eta gazteak 4 urtetik aurrera

ENPRESA ITZULPEN ETA INTEPRETAZIO ZERBITZUAK

- Esperientzia zabala duen lan taldea:
 - * Teknikoa (makina-erreminta)
 - * Komertziala
 - * Nazioarteko proiektuak.
- Goi-teknologiaren erabilera.
- Zerbitzu azkarra eta kalitatezkoa.
- Prezio lehiakorrak.

www.ils.es - ils@ils.es - Azkue auzoa (IMH) - 943 744 040 - Uparitzaga, 12 behea - 20870 ELGOIBAR



Maala, jaietarako gune askea

Maala da erdigunea; Maalan jartzen dituzte txosnak eta han izaten dira ekitaldi gehienak, baina jai-giroa eta herritarren parte-hartzea uztartzeko eta indartzeko hainbat ekintza Kalegoen plazan edo herriko beste zenbait kaleetan ere egingo ditu Maalako Jai Batzordeak. Horretarako egitarau bizi eta oparoa prestatu dute. Jaia bai, baina aldarrikapena ere bai, eta aurten, bereziki, feminismoak eta kontsumoak hartuko dute tokia gai hauen inguruko talde bana sortu delako batzordearen baitan.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



Bakoitzak askatasunez gozatuko ditu jaiak nahi duena eginez, beti ere besteekiko errespetuz, baina horretarako bidea erraztuko duenik ere bada. Maalako Jai Batzordeak ekitaldi ugari antolatu ditu, beti ere jaiak irekiak eta partehartzaileak izan daitezten. Lanean hasiko dituzte jaiak, Deba ibaia garbitzen hain zuzen ere; ibai jaietsiarik antolatu ez arren, garbitzeko beharra beti izaten baita. Jatordurik ere ez da faltako. Txosnak ireki ostean, herri bazkaria izango dute abuztuaren 22an, eta eguaztenerako preso eta iheslarien eskubideen aldeko bazkaria ere antolatu dute. Gazteen Egunean, pasta lehiaketaren ondoren ere bazkaria izango da, baina Kalegoen plazan. Baina jaiak musika eta dantza izaten dituzte lagun, eta baita jolasak ere. Lehen eguneko kantaldia, bertso saio musikatua, Txiki Eguneko erromeria eta zapatuko Ehun Kiloren kontzertua dira egitarauko jai ekitaldietako batzuk. Maalan egingo direnak, hain zuzen ere. Elektrotxaranga kaleetan ibiliko da eguaztenean eta jolasak askotarikoak izanik, Maalan ezezik, kalean eta Kalegoen plazan ere egingo dituzte.

FEMINISMOA ETA KONTSUMOA

Jaiak bai, baina gizartean zeresan handia duten gaiak jai giroarekin uztartzeko bi talde ere sortu dituzte aurten. Batetik, jaietan ikuspegi feminista txertatuko duen talde morea, eta bestetik, kontsumo taldea. Talde moreak, zapi moreak kaleratuko ditu jaietarako eta postontziak ere jarriko ditu txosnagunean nahi dena salatzeko. Kontsumo taldekoek, berriz, jaietako kontsumo ereduari buruzko hausnarketa egitea dute helburu nagusizat, eta baita pixkanaka aldaketak eta berrikuntzak txertatzea ere.

EGITARAUA

22 MARTITZENA

9:30 Herri gosaria King-Kong-en.

10:00 Ibai garbiketa.

King-Kong-etik Giza Eskubideen parkera.

14:30 Txosna gunearen irekiera eta protokolo feministaren aurkezpena.

Jarraian, Herri bazkaria, jolasekin dinamizatua.

16:30 Ez da kasualitatea bertso saio musikatua.

Iluntzean, Gaztetxearen urteurren ekitaldia.

23 EGUAZTENA

15:00 Bazkaria, presoekin elkartzasunez, Maalan.

Jarraian, Kantaldia.

19:00 Elektrotxarangarekin kalejira.

25 BARIXAKUA

19:00 Erromeria Maalan.

26 ZAPATUA

23:00 Kontzertua Maalan: Ehun Kilo.

28 ASTELEHENA

12:30 Pasta lehiaketaren hasiera, Kalegoen plazan.

13:30 Lehiaketako platerak aurkeztea.

14:00 Herri bazkaria, Kalegoen plazan.

Ondoren, Jolasak.

16:30-18:30 Ginkana.

19:00 Poteo-jolasak.

Gauean (kontzertu ondoren) Jolasak.



'Ez da kasualitatea' bertso saio musikatua

Ez da kasualitatea'. Hori da emakume bertsolari zenbaitek musikariek lagunduta egiten duten saioen izena, eta Elgoibarko jaietan ere izango da horrelako saio musikatua entzuteko aukera. Maalako Jai Batzordeak eta Elgoibarko Izarrak antolatuko dute elkarlanean, eta lau bertsolari ariko dira kantuan: Miren Amuriza, Onintza Enbeita, Ane Labaka eta Uxue Alberdi.

"Kasualitatez sortzen dira gizonezkoak bakarrik dauden saio dexente, eta bertso bazkari eta afari gehienetan bi gizonezko izaten dira. Normalean emakume bakarra izaten da saioa, edo asko jota, bi", esan digu Uxue Alberdi bertsolariak. Beraz, saio honetako lau bertsolariak eta gai jartzailea emakumeak izate horretan intentzio jakin bat badago.

Saioa apropos horrela antolatzeak hainbat ondorio ekarriko ditu, Uxue Alberdiren esanetan: "Konturatu gara horrelako saioetan lasaiago sentitzen garela bertsolariok. Gizonak gizon artean eta betiko kodigoan kantuan lasai aritzen diren bezala, bertsolaritzan eta eremu publiko batean askotan emakumeok ezin izaten ditugu arauak, gai-ordena, estiloa, tonua, umore kodea, erregistroak, gaiak... geuk markatu. Beraz, egokitu egin gara lehendik zetorren eskema batera, baina eragiten ere saiatzen gara. Saio hauetan gauza askok eragiten digute: lasaiago egoteaz gain, elkarrekin kantatzea bera iraultzailea da, ez dugulako elkar ezagutzen artista moduan. Beste baten saioak entzun arren, elkarrekin aritu ezean gauza asko ezin dira garatu, eta konturatzen gara ohiko saio batean emakume bat edo bi baino egoten ez garenez, elkarren ordezkio izaten garela eta askotan ez dugula elkarrekin kantatzen. Beraz, halako saioek elkar ezagutzeko eta elkarren umorea eta erregistroak ezagutzeko aukera ematen digute".

Publikoak, aldi berean, lau emakume ahots ezberdin entzuteko aukera izango du. "Emakume bakarreko saioetan

gure kultura matxistak salatzen duen uste oker bat egoten da: emakume guztiak berdinduz kantatzen dutela esaten dute. Laurak batera entzunez konturatuko dira zein ezberdinak garen eta matizei gehiago erreparatuko diete entzuleek", dio. Konplizitate giroa sortzen ere saiatuko dira, eta beste uste oker batzuei buelta ematen ere bai. "Esaten dute emakumeok ez dugula umorerik. Baina saio hauek oso ganberroak eta umoretsuak ateratzen dira normalean. Plaza askotan emakume bakarra izateagatik defenditu behar ditugun terreno edo gaietan, askotan ez dugu umorerako margen handirik izaten. Hauetan, ordea, jolasa oso presente dago".

Maidar Arregi gai jartzaileak gidatuko du saioa eta helburu bat izango du: erakustea edozein gairekin eta edozein tonutan gai direla umoretsu jarduteko. "Emakume bezala badauzkagu bizipen eta kokapen jakin batzuk gizartean erreferente ezberdinak sortzera eta gai ezberdinetan fokoa jartzera eramaten gaituztenak".

Musikari laguntzaileak Gari Otamendi (biolina) eta Ixak Arruti (gitarra) izango dira. Musikariek lagunduta kantuan egitean gozatu egiten duela aitortu du. "Erraztu egiten dizkit niri gauzak. Berezia da; askotan esperimendatzen da musikarekin, eta ni horren aldekoa naiz. Gaiaz gain melodia bat izateak giroa sortzen du, informazioa ematen du, erritmoa moteldu zein azkartu... lagungarri da. Gainera, saiatzen gara doinuak aldatzen errazkerian ez jausteko".

Uxue Alberdik dio plazarik zailena norbere herria izaten dela, baina aitortu du jai giroko saioa izanik sekulako ilusioa egiten diola Elgoibarren kantatzeak. "Badira 10 urte-edo ez dudala saio batean Maalan kantatu, bertso poteoren batean salbu, beraz, gogotsu arituko naiz".

Beraz, bertso saio berezi bat entzun nahi duen orok, badaki: kasualitatez baino gehiago propio joan daiteke abuztuaren 22an, 16:30etarako, Maalako parkera.



Ana Labaka



Miren Amuriza



Onintza Enbeita



Uxue Alberdi



Maidar Arregi



Julen Ansola

Irati Agirreazaldegi



Opor garaia. Bukatzea ez da inoren nahia, baina sanbartolomeekin askorentzat amaia. Jaien ondoren tristurak hartzen du askoren aurpegi alaia.

Argazkikoak oporretarako aukeratzen den toki horietako edozein dirudi, izan ere, herritik kanpora joan gabeko oporrak, gaur egun ez omen dira oporren irudi. Baina lanera itzultzeko atzera kontaketa hasi da: bost, lau, hiru, bi... eta kanpora joan ez denak nola erantzun lankideek egingo dizkioten betiko mila galdera txoribururi?

Zenbaitek ez du izango oporretan ateratako argazkirik erakusteko, baina batzuetan, herria bera besteek opor leku gisa egokia dela pentsatzeko, hitzez azaltzea ez al da hobeto? Esan daiteke eguraldi ona tokatu zaigula egoteko, oporrak baliatu ditugula txokorik bitxienak ezagutzeko, eta noski, ederki jateko,

azken finean behar genuen denboraz gozatzeko. Beraiek argazkien bidez gauza bera egingo lukete oporren berri emateko eta agian argazkietan lanak izango genituzke beraiek ikusteko eta ondorioz, han egon direla sinesteko.

Oporren inguruko argazki eta elkarrizketei jaietakoek hartuko diete lekukoa. Jaiak ere iritsiko dira beren ilunabarrera, ordea, eta oporren osteko lanerako lehen goiz hori ez da izaten askoren gustukoa. Hala ere, egunsentiarekin batera zezenei adarretatik heldu eta zailtasunei izkin eginez lanerako bueltari hartuko diogu piskanaka trukoa.

Batek baino gehiagok bisitatu duen herrialdeko ilunabarrarekin egingo du amets eta ezingo dio inork esan ezetz, baina diana entzun ahala egon beharko du lanerako prest.

Oporrak joango dira, baina gogoratu, atzerrian bezala gurean ere ilunabarra egunero iristen dela goizeko argira. Atsedenerako zein bidaiatzeko egunak berriz ere etorriko dira.

“Jaiak ere iritsiko dira beren ilunabarrera”



943 742 725
San Inazio, 4 beheka - 20870 Elgoibar



Trenbide kalea, 19 - Elgoibar - 943 531 221
Ondo pasa jaietan!




www.muramendiarrak.com
San bartolome, 29 - 20870 Elgoibar - 943 740 345



Makina Bereziak

Albitxuri, 1 · 3. Pabilioia, K-L
Tel.: 943 744 466 · Faxe: 943 53 14 74
ihardun@ihardun.net · www.ihardun.net



PEDRO BASURCO - AMAIA PAGOAGA

Ondo pasa jaietan!

Deba kalea 2, beheka · 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Telf.: 943 74 80 13 - Fax: 943 74 81 35
segurarno@segurarno.com · www.segurarno.com

Imprenta Arrillaga

Ondo pasa jaietan!

Inprimaketa: Offset
Digitalean

Ezkontza gorbidapenak
Hileta origieriak
Bisita txartelak
Kartelak - etiketak
e.a.

Fotokopiak

Koloretan
Txuri-beltzean



Trenbide Kalea, 13 - beheka (Frente parking Estacion Tren)
Tel.: 943 74 01 87
e-posta: arrillagas1@outlook.com

IBILTZEN

PODOLOGIA-KONTSULTA
IDOIA ARRILLAGA

Ubitarte plaza, 11, beheka - 20870 Elgoibar
Tel: 943 743 656

JAIETAN,
ONDO
PASA!!



Belaustegi Baserria JAIETXEA

San Migel Gaina z/g
Tel. 943 74 31 02
www.belaustegi.com

Sanbartolomeetan
gozatu Belaustegin!

Ondo
pasa
jaietan!



Sanbartolomeetako menu berezia egongo da!

NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

ZELETA BARAZKIAK



*Ekoizpen prozesuan
energia berriztagarriak
erabiltzen ditugu*



- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

Ortutik mahaira!
Kalitatea bermatua!

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • www.zeletabaserria.com

Ekoizpenaren %100 hazte-zikloa zainduz eta tratamendu kimikoen erabilera saihestuz lortzen dugu

Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

ITURGINTZA



SANTANA
Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

PAGOERROTA
ITURGINTZA
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
943 75 60 44 / 628 529 692
Faxa: 943 75 60 37
pagoerrotaiturgintza.com
www.pagoerrotaiturgintza.com



Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com

FONTANERÍA
Ibámar
ITURGINTZA

San Roke 10-A, behea B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskafnet.net

TELLABIDE
ITURGINTZA

Azpigoeta 7 behea - Mendaro
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzatefabbide@hotmail.com



PAGOAGA S.A.
BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urzuzo, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585
senda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
faller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

ARROZTEGIAK



Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



Olaso industrigunea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimare@hotmail.com



aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industriagunea, 9
20850 Mendaro
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com



Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com



ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industrigunea, 1-0/ 1-P
943 740 547



IGELTSERITZA



Urasandi, 22 behea - Elgoibar

Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko
koordinazioa.
Pladurrekin ere
lan egiten dugu.



Jardiñeta, 25 behea
EIBAR

Ernesto: 620 060 104
Fran: 600 465 789



Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkoa
Elgoibar

610 226 651

PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

ERREFORMAK



Erosario kalea, 15 behea - Elgoibar

943 744 019
605 713 168

- * Proiektuak
- * Erreformak
- * Gremioen koordinazioa
- * Obren zerbitzu integrala

ELEKTRIZITATEA



elektrizitatea


Kilimon hiribidea, 1 - Mendaro
943 530 356

iparelek@gmail.com
iparelek@iparelek.com



Uparitzaga 10, 6.B
Elgoibar
karranzaj@gmail.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999



ELEKTRIZITATEA S.L.
(lehen TAES)

Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Raimon: 677 512 462
Bulegoa: 943 200 697



INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
DOMOTIKA
TELEKOMUNIKAZIOAK

943 741 238
680 756 248

San Frantzisko, 56 - Elgoibar
roteta@rotetaelek.eus

LEIHOAK



SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosof@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90